

Sagastilerri

URRUZUJNO literatur lehiaketa



1999



PROSA

MAIALEN AIZPIOLEA

AINARA GOROSTIZU

MADDI GARMENDIA

IÑAKI GURRUTXAGA

ANDER FERNANDEZ

KRISTINA AIZPURU

LOREA MUGURUZA

IRAITZ AGIRRE

DAVID MARTINEZ

IDOIA GOIKOETXEA

eibar

katalogoa

Eibarko Hezkuntza Esparrua

943.20.27.48

20600 EIBAR

irakaskuntza ertainetako


URRUZUNO

literatur lehiaketa 1999

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1999

FITXA CIP

URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA (14. 1999)

Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 1999 : lan sari-tuen bilduma. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999

or. ; cm. — (Sagastiberri)

ISBN 84-457-1420-1

1. Euskal literatura-XX. mendea-Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma

891.69"19"(064.3)

Argitaraldia:	1.a, 1999ko uztaila
Ale-kopurua:	2.600
©	Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Azala:	Jesus Iturriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Wellingtongo dukea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo
Inprimategia:	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1420-1
Lege-gordailua:	BI - 1662-99

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 7

Gure garaiko idazleak. *Manu Lopez Gaseni* 11

Prosa: A maila

Zerua negarrez denean	<i>Maialen Aizpiolea Marticorena</i>	19
Baserritik	<i>Ainara Gorostizu Mujika</i>	29
Laztana	<i>Maddi Garmendia Irizar</i>	37
Espaloia	<i>Iñaki Gurrutxaga Zubimendi</i> ..	43
Bakardadearen miseria	<i>Ander Fernandez Jauregi</i>	53

Prosa: B maila

Isiltasunaren oihartzuna	<i>Kristina Aizpuru Segurola</i>	65
Musika baino pista hoberik non? .	<i>Lorea Muguruza Sarasua</i>	73
Burua tente mutilak!	<i>Iraitz Agirre Aranguren</i>	81
Zerurako bide bi	<i>David Martinez Zabalegi</i>	89
Björkeport maldizioa	<i>Idoia Goikoetxea Zabaleta</i>	101

Poesia: A maila

Soinu izoztuak	<i>Iñigo Barbancho Galdos</i>	123
Kolorezko bideak	<i>Nerea Makazaga Eraña</i>	131
Metro	<i>Jorge Gil Munarriz</i>	137
Oroitzapenak	<i>Alfredo Paia Ruiz</i>	145
Lau bekatu hilezkor	<i>Xabier Paia Ruiz</i>	151
Nire baitakoa zara	<i>Enekoitz Etxezarreta Etxarri</i> ..	159

Poesia: B maila

Itsasoaren besoetan	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	169
Amets gaiztoetatik ihesi	<i>Odei Arregi Izagirre</i>	175
Garai bateko hondarrezko erloju goibela	<i>Ekhi Lopetegi De la Granja</i> ...	181
Asko maite duenak asko sufritzen du	<i>Irati Goikoetxea Asurabarrena</i>	187
Margotu ninduten	<i>Gaizka Amondarain Ipiña</i>	193

Urruzunotarrak 1986-1999		201
---------------------------------------	--	-----

HITZAURREA

Hamalagarren urtez baditugu “*urruzunotarrak*”, Urruzuno lehiaketaren irabazleak. Irabazleok liburu honetan ikusiko dituzte beren lanak argitaratuak. Baina hori izozmendiaren punta besterik ez da. Edo, gure baratzera etorrita, *Sagastiberri* honetako sagar aukeratuak baino ez dira. Parte-hartzaile guztien lana kontuan hartzen badugu (eta hartu behar litzateke), lehiaketa honen eragina biderkatu egiten da. Azken batean, hori baita azken helburua: Euskal Herriko gazteek literatura egin dezatela, euskara landuz, idazmen-teknikak saiatuz, irudimena askatuz.

Uzta honetan, ordea ez dira sagarrondoak bakarrik ikusi behar. Fruta-arbolak landatu eta zaindu dituzten irakasle eta gurasoak ez ditugu bistatik galdu behar. Zorionak guztioi!

Baina goazen datuetara. Epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Manu Lopez Gaseni
M^a Jose Olaziregi
Arantxa Urretabizkaia
Joxe Mari Satrustegi
Patxi Zubizarreta

Hona 1999ko parte-hartze datuak. 359 lan jaso dira: A mailan 98 prosan eta 42 poesian; B mailan 158 hitz lauz eta 61 olerkian.

Lehiaketak dituen 20 sariak bosnaka banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan. Aurtengoan, sari guztiak eman dira lau atal horietan. Poesia arloko *gazteen* mailan, Azkoitiko Odei Arregik bi sari irabazi ditu. Bi sariak jaso ezin dituenek, epaimahaiak, aipatu mailan saritzekorik ez eta *zaharren* mailan, aipamen gisa, seigarren sari bat ematea erabaki du. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaia Suiza aldera.
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 40.000 pezeta.
- Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.

Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Egindako ahaleginen ezagutza koxkor bat egin nahirik, bi ikastetxeri egiten zaie, urtero, aipamena: aurten Arrasateko institutuari eta Sopelanako Ander Deuna ikastolari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 1999ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein

orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Zorionik beroenak sari eta aipamen irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, epaimahaikoei eta, bereziki, ondoko aitzin solasa paratu duen Manu Lopez Gaseniri.

Besterik ez. Sagar gazi eta gozo eder hauek, orain liburuan gorderik, dastatu ahal izango ditugu... Hurrengo loraldiaren zain gelditzen gara.

Euskara Zerbitzua

GURE GARAIKO IDAZLEAK

Manu Lopez Gaseniren
aitzin solasa

Arthur Rimbaud poeta frantsesak hamazazpi urte zeuzkan bere poema libururik garrantzitsuenak idatzi zituenean; Susan E. Hinton estatubatuarrak hamasei besterik ez *Errebeldeak* nobela txundigarria argitara eman zuenean: hitzaurre honen ondoren datozen poema eta narrazioen egile askoren adin berbera. Baina Hinton-en eta, areago, Rimbaud-en garaiak beste batzuk ziren; orduko gazteek irakurtzea zuten denborapasarik zirrargarri eta, askotan, debekatuena. Irratirik ez; telebista Verne-ren burutik ere pasa ez zen asmakizun ezinezkoa zen; eta bideojolasez eta internet-ez, zer esanik ez; errealitate birtualik grinatsuenak *Robinson Crusoe* eta *Madame Bovary* izan zitezkeen. Filmerik ikusgarrienak, berriz, Parisen edo Londresen taularatzen ziren antzerki lanak ziren.

Ordutik hona gauzak asko aldatu dira alderdi askotatik; gehienetan onerako, noski. Esaterako, inoiz baino jende gehiago bizi da munduan idazteko ofiziotik; inoiz baino liburu gehiago argitaratzen da; inoiz baino irakurle gehiago dago, zenbaki absolututan hitz eginez. Baina (beti dago bainaren bat) Mendebaldeko Kultura deitzen

den horren sasiko bat da gure kultura: onartugabea, baztertua, gaizki elikatua; ez ditu izan seme-alaba legitimoek izan dituzten aukera berberak. Horregatik, galdutako denboraren bila bezala, instituzioek Urruzuno bezalako lehiaketak antolatzen dituzte literaturzaletasuna bultzatzeko gure artean. Ez gure gazteak txekiarrak edo norvegiarrak baino irudimen gutxiagokoak direlako, ez baita egia; irudimen eta indar narratzaile hori *euskaraz* garatu ahal izateko baizik.

Gaur egun, Urruzuno bezalako lehiaketei esker, idazletzaren hazia ereinda dago gazte belaunaldi askoren bihotzetan, lurra emankorra baita oso; orain eguzki ego kiaren beroa, euri aproposaren hezetasuna eta ongardiaren neurria besterik ez zaizkie falta zein bere erara loratzeko: batek marrazkigile bat ezagutuko du, eta komikiak egiten hasiko dira elkarrekin; beste bat zinemagintza ikasten hasiko da, eta buruan dituen istorioak filme gero eta luzeagotan islatuko dira; harako hark lau haizetara kantatuko ditu bere poema erromantikoak kitarra baten laguntzaz; beste hark idatzitako bakarrizketa luze bat inguruko antzoki guztietan eskatuko dute; hangoa umeentzako ipuinak idazten hasiko da; besteari, akaso, Euskadi Saria emango diote bere azken poema liburuagatik.

Hazia ereinda dago, eta emango duen fruitu umotua hitz indartsua izango da, hartzen duen forma hartzen duela. Izan ere, hitzaren bidez izpiriturik gogorrenak ere hunkituko dira, eta aspertuenak bizkortuko; dohakabeei itxaropen izpi bat piztuko zaie, eta bere buruaz harro daudenak zalantzaren ur uherretan murgilduko dira. Izan ere, milurte berri baten atarian egon arren, gizakion grinak Neolitikoko berberak dira. Izan ere, azken mende

honetako gertakari askok amildegiaren ertzean jarri gaituztela badirudi ere, oraindik ere, munduak idazleen beharra dauka.

PROSA. A maila

Batxilergoak eta
Erdi Mailako Formakuntza Zikloak

Zerua negarrez denean

Maialen Aizpiolea Martikorena
Manuel Larramendi ikastetxea
Donostia

Ohean etzanda nagoelarik zeruari so geratu naiz. Bere gris koloreak adierazi nahi duenez triste dago. Bertatik igarotzen diren txoriek ezin dute alaitu, leku zoragarrietara doan jendez betetako hegazkinak irrifarra itzuli ezin dion lez. Nire leiho hegian uso bat pausatu da. Haren lumak laztantzeko gogoa sartu zait bat-batean. Nozpait norbaitek eduki ote du eskuartean? Ez naiz nire izara artetik mugitzera ausartu. Niri begiratu didan unean hegaka urrundu da; berarekin eramateko eskaera ezin izan diot luzatu, beranduegi da.

Bederatziak eta laurden dira mesanotxeko erlojuan. Erizain lodikote bat sartu da gelara ¿estás bien? galdetuz,. Honek behintzat gazteleraz egiten du, atzokoak frantesez bakarrik egiten zidan. Ama orain hemen balego niri arnasa hartzeko betarik eman gabe ondo nagoela erantzungo luke. Baina ama une batez aitari hotsegitera joan da; ea norbaitek niregatik galdetu duen, galdetu ezkeroko egun pare batez amaren lagun bat bisitatzera joan garela... ezin da inor ezertaz ohartu. Segidan, erizainak ondo nagoela entzun ondoren, berriro irteteko atea ireki duenean, moja bat ikusi dut pasiloan lore sorta bat es-

kuartean duela. Ziur nago niri ez zaidala eskolako mojarrik etorriko bisita egitera, baina, ba al daki inork ohe hotz honetan nagoela?

Orain dela astebete sor Inesek errieta egin zidan bere matematikako klasean loak hartu ninduelako, baina gau hartan ezin izan nuen begirik itxi eta hori ordaintzen ari nintzen orduan. Gajoeak jakingo balute eskola hartako lege zorrotzen menpean zenbat sekretu gordetzen diren! Izan ere belaunetarainoko gona, urdina eta blusa zuria daramaten, daramagun neska bakoitzak istorio bat eta hainbat ahopeko gordetzen ditugu norbere barnean, pekatuz errutuak hainbat eta hainbat.

Harresiz itxitako patio zabala dut gogoan eta ate berdetik ikus daitekeen mutilen fraile eskola. Tentaldian guztiak preso eror gaitezen jarriak dirudite bi eskola haiek parean, ironiko suerta daitekeen arren, mojen eskola bat fraileen eskolaren tentaldien arrazoi. Bi eskolen irteera orduak gainera berdinak ziren, beno, eta dira, izan ere ni hemen egoteak ez du munduaren martxa galaraziko.

Urteekin tentaldia beharra eta kuriositatea izatera iritsi zen eta nire hamasei urteekin laket nuen bertako edozein mutilen begiak nire hankei so zeudela erreparatzea, are gehiago begi horiek zureak baziren. Banekien gustuko zenuela nire ilearen mugimendua burua jiratzan nuen eta hori kontutan hartuz haizeak laztan ziezadan ahalegintzen nintzen. Inor ez zen gure begirada jokuez ohartzan, arretaz jokatzen ikasi baikenuen.

Oraingo begirada bakarrak ordea amak bidaltzen dizkidanak dira, dezepzio eta higuinez kargaturikoak. Eskerak minutu pare batez behintzat bakarrik laga nauen!

Bost aste baino gutxiagoan nire bizitzak beste norabide bat hartu duela uste dut. Denbora luzez loturik dagoen zaldiak askatasunaren aurrean salto egiten duen lez egin nuen nik jauzi, baina zer gerta zitekeen argi jakin gabe. Azken hamabost egun hauetan hamasei urteak atzean utzirik bat-batean hazi naizela dirudi eta guztia zu gabe, zuri esker baina zu gabe, ez baitakizu ezer.

Inork ez dakien arren eskolako jardinaren amaieran, sasiek harresia estaltzen duten horretan zulo bat dago, burdina zahartuek kanpo alderako eskaintzen duen pasabidea. Agian ni ez naiz hori dakidan bakarra, apika ikasle askok dakite hori baina inor ez da ezer esatera ausartu. Astearte hartan jolasaldiaren amaierako kanpaia zoragarria iruditu zitzaidan, inoiz ez bezala, zoragarria. Guztiak klaustrotik geletara zihoazen heinean ni urrunduz nindoan, nire askabidea izango zen lekura, harresiaren zuloa. Ahal nuen bezala, sasi artean zenbait arrasta egin arren, pozik kanpora irten nintzen. Banekien zai izango zintudala eta zerbait ezberdina egiteko aukera hari nola egin uko?

Arrotz sentitzen naiz kamisoi zatar honekin eta inguruan ditudan pareta zuriei denbora luzez so geratzen banatzaie zorabiatu egiten naiz. Ezinezkoa iruditzen zait, nola izango naiz bada ni hemen harrapaturik dagoena? Askatasun bila joateagatik geratu naiz hemen preso. Zerua geroz eta ilunago dago.

Orduan ordea zerua urdin zegoen eta eguzki gozo hark nire masailak berotzen zituen. Lehenengo aldiz hitz egin genuen lasai, inoren begiradaren mehatxupearan aurkitu gabe. Lehenago niri eman zizkidaten aholkuak ahan-tziak nituen; ez omen zinen nitaz sekula maiteminduko.

Orain badakit hori hala dela, beno agian orduan ere banekien baina ez zitzaidan axola, azken finean, loreriklore dabilen tximeletak ere nahi duen bidea har dezake ez da? Pentsamendu hotzez nire bizitza gidatzen erakutsi zidaten, guztia debeku eta tabu beltzen atzean izkutatzen zutelarik, baina orduan lehenengo aldiz sentitu nuen barnekaldean berotasun apur bat eta aitortu beharra neukan, benetan laket nuen sentsazio hura.

Nire ohean egon nahiko nuke nire arrokekin jantzirik, nire usainez inguraturik eta ez hemengo desinfektante kiratsaz nardaturik; hil usaina besterik ez, hamar minutu bakarrik; garrasi egin nahi honek zerbait aldatuko balu!

Gaztainondo mardul haren gerizpean “Zertan ari zara?” galdetzearekin bat hasi zen guztia. Ez nuen galdera haren erantzunik behar, laztan joko hartan jarrai zezan besterik ez nuen gura. Ileko adatsak belartxoak beteta neuzkan baina ba ote zuen axolarik? Oraindik izterrean egin nuen arrastada sakon haren marka bertan ikus dezaket, gorputz biluziak ahul dira baina plazer denean minak ahantz daitezke, min fisikoak bederen. Asperen luze batez baretu zen inguru guztia, orduan arretarik hartu ez nion inguru izkutua. Txoriak ere kantuan entzuten ziren, apika nire buru barnean soilik egiten zuten kantu.

Badakit hemendik ordu bete baino gutxiagora nire izate guztia zoritxarrera murriztuko dela. Baina ez diot higuinik nire buruari. Zer nahi nuen eta zer gerta zitezkeen argi jakin gabe azkarregi aurrera pausua eman nuen, besterik ez; asko hala ere. Ez dagokiena nigandik urrundu nahi dute, eta ezin dut oztopatu.

Etxera iritsi nintzenean komuneko ispiluan nire gorputza behatu nahi nuen. Arrastada batzuez gain ez zirur-

dien aldatu zenik, baina ez nintzen hala ere lehen bezala ikusten. Gustura nengoen, lasai, alai. Kuleroei erreparatu nienean “madarikazioa, hilekoa etorri zait!” eta ze egun zen kontutan hartu gabe aldatzea erabaki nuen, ez nuen kontuak egiteko gogorik, nire pozak buruaren lana oztopatzen zuen. Zu nire ustezko hilekoaz konturatu zinen edo ez zen nire ardura bakarra. “Ez zen konturatuko, bestela ni ere lehenago ohartuko nintzen “eta lasaitu nuen nire burua.

Baina hileko faltsua lore bakarraren galtzea besterik ez zen. Orain bai, badakit zer eta zergatik, baina beranduegi aukeran, ez da? Lotsaren erruz esatera ausartu ez zirena nire esperientziak erakutsi behar. Hilabete ondoren guztiak berdin jarraituko zuelakoan nengoen, baina arraro sentitzen nintzen. Ez zen ohikoa nigan gorputz martxaren atzerapen hura. Espero ez bezala ernetua zen zure hazia nire barnean eta nik jakin gabe bizitza berri batek hartzen zuen nire gorputzaren arreta nagusia. Amari hileko ezaren kezka azaldu nion eta bere begirada susmagarriak harritu egin ninduen. “Aitortzeko ezer ba al duzu? Ez zinen bada pekatuan eroriko?” burua makurtu nuen. Nola jakin zezakeen ezer esan ez banion? Zaplasteko bat eman zidan, inoiz ez bezala gogor eman zidan. “Zuk zikindu duzu garbi zirauen etxeko ondrea” eta inori deus ez esateko mehatxu egin ondoren atea bortizki itxi zuen. Urrezko kaiolan hazitako txoriaren modura sentitu nintzen, atea zabaltzeko eta inork hegan egiten ez erakutsiagatik airea menperatu nahian, lurraren kontra tronpatutako txori ezjakina.

Afaltzeko garaian aitak ez zidan begietara begiratu ere egin nahi. Nahastuta nengoen, nahastuta nago; orduan zer gertatzen zen argi ez neukalako, eta orain berriz

geroak zer ekarriko duen ez dakidalako. Eta bitartean zuk ez dakizu ezer, baina apika ez naiz ni bakarra izan, nork daki, ezertaz ohartzen ez zaren bitartean ezerk ez dizu axolako. Zuk gustura jarraituko duzu eta ni bezalako neskak ongi sentiaraziko dituzu, hasieran bederen.

Afalostean nire ahizpa haserre biziz sartu zen logelara. “konturatu al zara zer egin duzun?” garrasi egin zidan. Zalantza aurpegiz begiratu nion eta mespretxu ikutua zuten hitzekin mintzatu zitzaidan “lehenengo topatu duzun mutilarekin haragikeriak egin eta orain haren ume bat izango duzu” zer zioen? Nik ume bat?. Argi azaldu zidan ni bezalako ardi galduei gertatutakoa; “nire barnean haur bat?” “lasai, hori ere konpon daiteke eta!! Zure akatsak gurasoek konpondu beharra ere, ez duzu lotsarik!”

Gau guztia nire pentsaketetan murgildurik eman nuen. Zergatik ez? Agian huraxe zen nik behar nuen aukera. Benetan maitatua sentituko nintzateke arau hotz haietatik at. Baina nola konpon zitekeen? Zer esan nahi ote zuen horrekin? Zalantza asko nituen baina ez nintzen ezer esatera ausartu. Astea korapilatsua izan zen. Eskolan guztiek zekiten zerbait gertatzen zitzaidala baina ez zuten, ez dute sekula imajinatuko zer den.

Astebete beranduago berriz, erlojuan bederatziak eta hogeita bost direnean ama sartu da nire gelara. Atzetik bi erizain dakartza. Kamilara pasa naute. Nire hamasei urte hauekin nirea dudan bakarra, gurea duguna, laster ezer ez izatera pasako da.

Logelatik irtetera noan unean Frantziako hiri madarikatu honetako leihotik erreparatu nahi dut azkenengo aldiz. Beti madarikatuko dut leku hau, sekretupean gorde

beharrekoa izango dudan toki hau. Ez da usorik ikusten ez eta txori kanturik entzuten ere, ez nire buru barnean behintzat.

Nire tristeziara ailegatzen den honetan zerua zeharo goibeldu da.

Bederatziak eta erdi: euria hasi du.

Baserritik

Ainara Gorostizu Mujika
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Ia hauts harturik zeuden maletak jaitsi berri dizkit Martinek ganbaratik, Mikela alaba gazteena Ameriketara joan zenean erabiliko ziren azken aldiz orain bost bat urte gutxi gorabehera. Ohitu gabe nago ni maletak egitera, baina ez dut denbora asko beharko etxeko lau bat, igandeetan mezetarako erabiltzen dudan soineko berria, oin puntetan min egiten didaten zapata marroiak eta sekula kentzen ez ditudan apreta zaharrak maletan sartzeko.

Berehalakoan egin dut arropa bilketa, bai nirea eta baita Martinena ere. Gizona isilik dabil azken bolada honetan, bihotz minez, baserri zaharra utzi beharrean gertatu delako, berak onartu ez arren biok ia zaharturik gaude, eta etxea ezin dugu bion artean aurrera eraman, lan gehiegi baita biontzat. Mundu honetara ekarri ditugun sei seme-alabak ere urrun joan zaizkigu, guztiak hirira, baserriak lan handia baitakar bizkarrean eta hauek ongiegi ohituak daude.

Beste maleta zahar batean egongelan ditugun argazkiak eta oroitzapenak sartzen ari naiz, toki gehiago bete-

tzen dute gomutek bihotzean maleta zaharretan baino; Martin, berriz, ukuilura bidali dut hemen ernegatu egiten bainau. Ezkontzako argazkian erreparatu dut, txorkatilaraino iristen zaidan soineko beltz batekin nago, orduan horrela ezkontzen baikin denok. Zeinen gazteak gauden gizona eta biok, nork harrapatuko ote lituzke urte haiek! Martinek orduan bi begiak zituen oraindik, hezurmuinak kiskaltzerainoko begirada sarkor hark maiteminarazi ninduen orain 60 bat urte. Baina, adiskide min zuen Andresek gerra zibilean eskuin begia atera zionetik begirada iluna ikusten zaio, anaiek anaien aurka egiten zuten guda. Aretzeko Andresek bertan eman zuen bizia, herrian asko sentitu zen bere heriotza, azkarra baitzen mutil hura, baina heriotzak azkarrago jokatu zuen.

Hautsa kendu eta ordenan ari naiz erretratuak maletan gordetzen. Arantzazura familia guztiak egin genuen bisitako argazkiari so nago, Luisito mutil gazteena gorri-narekin egon ondoren izan zen txangoa, gorriak ikusi zituen gizarajoak! Orduan ez zen gaur egungo moduan iriteten herritik, urtean behin elizbarrutiak antolatzen zuen bidaiaren zain egoten ginen guztiok apreta zaharrak baztertu eta zapata berriak erakusteko. Meza nagusia entzun, bost ogerlekorekin bazkari legea egin eta bagenuen bi hilabeterako poza. Oñatitik Arantzazura oinez joan ginen Anttonio eta biok, Luisito horrela sofritzen ikustean, Arantzazurako azken kilometroak oinez egingo genituela zin egin baikenuen eta zero zabaletako Jaunari esker onik atera zitzaigun mutila.

Garai haietan haurrak gustura ibiltzen ziren mendian, igande goizak aprobeztatzen zituzten mendira joateko. Sarritan joaten ginen guztiok Txindoki aldera, gero Larraizko bentan oliba beltzak jan eta baserrira itzultzen ginen,

honez gero begiak hertsirik ere asmatuko nuke harako bidea, baina nire oinak ez dira horretarako gai dagoeneko. Maiz amestu izan dut, Martin eta biok sei seme-alabekin eta euren senar eta emazte nahiz hurrekin Txindokiko mendi muinora iristen, oinpean Arkaizpe baserri zaharra sentituz. Eta Anttonioren ahotsa entzuten nuen, txikitari lez: “bai ama ni zuekin izango nazue beti, seme zaharrena naukezue ta oinordeko modun nik zainduko det baserri, baita zueke e’naiz ni Arkaizpetio inoa jungo ezta Zaldibitiore, ez Jaune!” baina, haizeak eramane zituene hark aho betez esandako berbak, castellana bat ezagutu eta aguro joan zen hura Avila aldera, urtean behin etortzen dira orain *Saldibira* Anttonioren emazteak esango lukeen moduan, *a Arcaispe, a ver a los aitachus*.

Lanean diharduten ene esku ximurtuetan erreparatu dut, zimur bakoitza igarotako urteen oinazearen isla dela esan liteke. Latzak pasatutakoak baikara, baina, beti aurrera irten gara, neguak hotzak izaten zirene hemen goian, baina, sutondoan bata bestearen alboan igarotzen genituen gau hotzak. Uzta txarreko urteak ere izaten genituen maiz, artoa beste ezer ez geneukala, baina, aurrera irten ginen beti ere. Udazken madarikatu batean, berriz, behi guztiak hil zitzaizkigun izurriteren batengatik edo, baina, bestek emandakoarekin egin genion aurre goseari. Orain aldiz, bizkar gainean ditugun urteen zama ahantzi ezinik, etsita, herrira jaitsi beharko dugu, aurrerapen eta erosotasun guztiak dituen zahar-etxe bat ireki berri baitute, hori diote behintzat seme-alabek, eta hori da nik sinetsi gura dudana. Martinen ultzeraz arduratuko diren erizainak ere izango omen ditugu, Arantxak adierazi zigunez, hotelean bezain ongi aurkituko omen gara zahar-etxean, neska honek betidanik izan du gehiegitzeko joera. Pilar bada ez

bada ere isilik egon zen, haren ahotik ez da ez gezurrik entzungo!

Oroitzapenetan murgilduta, ohartzeke negarrez ari naiz. Martinen makila hotsa entzun dut eta malko mikatzak lehortzen saiatu naiz, baina 60 urte elkarren ondoan igaro ondoren ez du asko behar nire sentimenduez oharitzeko. Ez dit ezer esan, hain penatua dago gizarajoa!

Haurren logeletara zuzendu naiz, (ez dakit zergatik diodan “haurren” logela aspaldian utzi baitzioten haur izateari) Mikela eta Arantxa zeudenekoa. Zeinen ezberdinak ziren biak! Baina, izugarri ongi konpontzen ziren. Arantxa oso idealista zen, hura mundua aldatzeko jaioa zela esaten zuen aitona Hilariok, zuzenbidea ikasi nahi zuen, baina, berehalakoan okertu zitzaion bidea, gazterik gertatu baitzen haurdun eta horrek aldatu zuen bere mundua eta bere bizia, bera baino dezente zaharragoa zen irakasle batekin ezkondu zen eta etxean gelditu behar izan zuen haurraren kargu. Esther izan zen ene lehen biloba, nik Maria izena ezarri nahi nion, ama guztiz garbiaren moduan, baina, ez ninduten aintzakotzat hartu, neskato bixia atera zaigu, hau ez da berehalakoan galduko, nolako egurra halako ezpala! ezin ukatu dezake honek bere amaren alaba denik!

Sukaldera hurreratu naiz, Martinengana. Su bajua-
ren ondoan dago, bere gorputzean present dager iragana. Izugarrizko pena ematen dit, medikuak adierazi legez urte gutxiz biziko omen da eta azken egun horiek berton igaro nahi lituzke. Anttoniok herrira jaitsi behar genuela adierazi zionetik ez du ia hitzik egin, mokaurik ere ez du ia probatu. Aspaldian aitortu zidan, Esther ttikia jaio eta handik hamar bat urtera, ultzerako

arazoezin hasi zenean edo, haren desiorik handiena nire alboan eta baserriko ohe goxoan hiltzea zela. Al-
datu beharko du, ordea, ideia hura, onartzea zail duen
arren guztia prantatu digute gu zahar-etxera jaitsi gai-
tezen.

Pilar alaba zaharrenak oparitu zidan errosario santua
du Martinek eskuartean, guztia ongi joan dakigun eska-
tzen ariko zaio Aita zeruetakoari, aspaldian honi beste
ezer ez du egiten ilusioz. Gazte zela eman zigun Pilarrek
poz ederra. 20 urte betetzeko zituela lekaime izatea gus-
tatuko litzaiokeela aitortu zigunean. Martinek beti esaten
zuen seietako bat eroriko zela Jaungoikoaren esku be-
deinkatuetan, baita gertatu ere, urte mordoska darama
Aizkortane ondoko konbentuan, bere eskuak Jaunaren
zerbitzupean jarriaz.

Juantxoren auto moderno horren zain gaude biok su-
kaldean, burumakur, herenegun abisatu zigun Juantxok
bera etorriko zitzaigula bila, Juncal Artzateberriko alaba
gazteenarekin ezkondu zitzaigun. Ustekabeko ederra
eman zigun guztioi, sendi oneko neska fin eta langilea da
Juncal, hiru mutil mardul eman dizkio gure semeari, ala-
ba baten desira zuten baina horretan gelditu beharko du,
Artzateberrin bizi dira egun bostak, Juncalen gurasoekin,
lehen baserria zutena orain txalet eder bilakatu dute, ero-
sotasun guztiekin, zahar-etxearen antzera dirudienez. Ar-
kaizpe baserri zaharra ere eurek hartuko dute, uste dut is-
kanbila ugari izan zituztela neba-arreba guztien artean,
baina, azkenik senide bakoitzari bere zatia erosiko omen
diote, pistinadun txalet bat egiteko asmoa dutela uste
dut, asteburuetarako edo. Martinek ez daki honen guztia-
ren berri, orduan bai geldituko zela hemen inora mugitu
gabe.

Urrutian sumatu dut autoa, “tooterreno” horietakoa da, eskuin eskua jasoaz diosala eginaz datoz biak. Atzera baserrira sartu naiz Martinen bila, urduri nabari dut ene gorputza; gure logela zaharrean topatu dut belaunikaturik, Jesukristo gurutziltzatuaren irudiaren oinpean, aguro beregana eraman dezala erreguka, begietan malkoa dariola.

Laztana

Maddi Garmendia Irizar
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Ile urdindun gizonak egurrezko armairua ireki eta goiko apaletik whisky botila bat ateratzen du.

– Kaixo laztana esaten dio. Zer moduz zaude gaur?

Begi dizdiratsuekin egiten dio so esku dardartien artean eusten duen botilari. Laranja koloreko likidoak bere pulsuaren dardararen erritmoan beirazko hormen aurka apurtzen diren olatu txikiak sortzen ditu.

Urdin koloreko begi negartien oinetan bi poltsa more ilun ageri dira. Bart gauean ez zuen lorik egin.

– Ba al dakizu, ene erregina? galdegiten dio botila lepaluzeari Gaur inoiz baino gogo handiagoak nituen zurekin elkartzeko. Bai, bai, badakit zuk ere asko bota nauzula faltan. Emango al didazu musu gozo bat, laztana?

Olatutxoak guztiz desagertu aurretik zakarki astintzen du botila, estaltzen duen tapoia kendu nahian.

– Zer, gaur ere jolastu egin nahi al duzu?, eta atzapar lodiekin tapoia inguratzen duen zelofanezko lamina mehea kentzen saiatzen da. Baina azkazalak motzegiak dira

eta zelofana bere behatzen artean irristatzen da jostari. Agureak berriro maitekiro ekiten dio bakarrizketari.

–Ez zaitez horrelakoa izan, laztana. Utz iezadazu gonatxoak altxatzen.

Zelofanezko mintza geroz eta irristakorragoa bilakatzen ari da izerdiaren hezetasunarengatik, eta mihi gorritza ezpainartetik agertzen da bere esfortzua erraztuko duelako itxaropenarekin. Behin eta berriro saiaturen den arren, plastikoa labaingarriegia da. Guztiz kontzentratzen da bere egitekoan: whisky botilaren ezpain goxoei musu eman nahi die, bere alkoholaren gozotasuna ezta-rrian behera nabaritu gura du kostala ala kostala.

Azkenik, lur jota, mahaiaren pean ezkutatuta dagoen kajoia zabaldu eta aizto luze zorrotz bat ateratzen du.

– Barkatu laztana, baina ez didazu beste aukerarik eman. Modu onean saiatu naiz, baina gaur gerriko estuegia jantzi duzu. Oraintxe kenduko dizkizut nik gerrikoa eta gona.

Labanarekin zelofana ebakitzen du. Harro sentitzen da bere buruarekin, azkenik lortu baitu ditxosozko segurtasuneko prezintoa apurtzea. Behatz dardartiz plastikozko txapelaz estalitako kortxoa kentzen dio botilari.

– Ez dakizu zeinen ederra zaren, laztana. Munduko maitalerik sutsuena zara, beti nire ohea berotzeko prestatu zaude. Emadazu musu bat!

Botila ezpainetara eramaten du eta zurrupada luze bat ematen dio. Zintzuruko intxaurra gora eta behera mugitzen da whiskya ezta-rrian behera irristatzen zaiola. Kokotsean zintzilik bi tanta disdiratsu sortu dira.

– Laztana, zu zara gehien maite dudana mundu honetan.

Botila mahai gainean lagatzen du eta begirabegira gelditzen zaio, liluraturik. Berak bakarrik entzun ditzakeen hitzak aditzen ditu arretaz.

– Bai, badakit zuk ere asko maite nauzula.

Atzera ere botila esku dardartiekin jasotzen du aurpegi zimurraren pareraino eta ezpainak listuz bustiz beirazko ahoari harrera ematen dio. Alkohol laranja amaituz doala kristalaren gardena agerian uzten du. Jada edukia-
ren erdia edan du.

– Laztana, gaur gauean ondo pasatuko dugu biok, bai horixe! mihia trabatu egiten zaio ahoan. Buruan dituen hitzak ezin ditu berak nahi bezain zehaztasunez ahoskatu, eta horrek gozamina sortarazten dio bere arimaren barrenbarrenean. Botilaren kurbak laztantzen ditu esperientziadun gizonek emakumeen gerriak igurtzitzen dituzten era berean. Gora eta behera mugitzen ditu behatzak beira hotza ferekatuz.

Berriro ere botilari trago luze bat ematen dio, aurreko biak baino luzeagoa. Orain kokotsean behera doazen whisky errekatxo txikiak alkandora koadrodunean hiltzen dira, eta sentimendu horrek oraindik ere gehiago eszitatzen du. Biriketari arnasa amaitu zaiola sentitzen duenean botila urrundu eta aire garbia arnasten du, sakonki. Zein atsegina den whiskyaren zaporea!

Sukaldeko ordulariaren ertzak lausotu egin dira, orratzak zeuden lekuan orain orbain ilunak besterik ez dira ageri. Lurreko baldosa zuriak jada ez dira lauak, baizik eta eskailera zorrotzetan bilakatu dira eta leku batetik

bestera mugitzen dira. Buruan berunezko txapel astuna nabaritzen du.

– Oh bai, laztana! Oh bai!-oihukatzen dio ezerezari. Odolaren taupadek lokiko zainak astintzen dituzte erritmo bizian. Alkoholak bere besoetan kulunkatzen duela iruditzen zaio, amak ume jaioberria bularren kontra zabukutzen duen moduan. Oh bai, laztana! Maite zaitut, laztana!

Hitzak ulu ulerkaitz bihurtu dira eta bere ahotik artikulatu gabeko soinuak besterik ez dira ateratzen.

Botilaren muturrari azkeneko z muin emanaz bere gozamenean galtzen da agurea. Whisky osoa amaitu arte jarraitzen du edaten. Azken tragoaren garratzasunak mihia eta eztarria erre dizkio, baina are gehiago bihotza.

– Joan egin behar al zara, laztana? Ez zaitez joan oraindik, ez mesedez. Ez zaitez joan oraindik ... EZ!

Oihu luzeak sukaldeko isiltasuna hausten du. Aitonak burua besoen artean ezkutatu eta mahai gainean erortzen uzten da. Begietan behera irristatzen zaizkion anpulu lodiek whiskyaren musu beroak protagonista izango dituen amets luzeari hasiera ematen diote.

Espaloia

Iñaki Gurrutxaga Zubimendi
Lizardi institutua
Zarautz

Gauak zinema haren aurrekaldeko espaloian galtzen ziren, estreinuko karteiei begira baino, emanaldietatik ir-teten ziren ameslariekin bidaiatuz. Bagdageko zine areto merkeena zen hura, agian pobreena ere bera zelako, eta estreinuan iragartzen zituzten filmeak zenbait etxetan dagoeneko telebistaz ikusiak zituzten hiriko aberatsenek. Abenduaren hamasei hartan *Titanic* zioten kartel erral-doiez apaindu zuten zinemaren kanpo aldea, inoiz baino zoragarri eta ederrago ikusten zelarik. Hiru kartel nahi-koa izan ziren haur eta gazte gehienei bertara hurbiltzeko gogoia piztu zekien, ia guztiek nahi baitzuten joan itsa-sontzi famatuan bidazti lekutik mugitu gabe. Bederatzie-tan hastekoa zen emanaldia, baina zortzi t'erdia jotzera-ko espaloia familia askoren topaleku bihurtu zen, ordu gutxi barru gauarekin batera zeluloideak eta fantasiak eraikitako paradisuan galduko ziren familia haien topale-ku.

Baina abenduaren hamaseiko gau hark ezin izan zuen zinemako espaloian lorik egin. Sirenotsak hiria astindu zuenerako, zetorrena asmatuta bezala, izarrek agur esana zioten gauerdiari. Baina haientzat ere berandu zen, be-

randuegi ihesari emateko, ordu erdi geroago bengalek eta misilek atzetik jarraituko baitzieten euren ihesaldian. Hiriak ere ez zuen astirik izan zerura begirada bat luzatzeko, eta desordu haietan esnatu egin zen orain hona gero hara, batera eta bestera biraka, ortze ilunduaren ispilu izan nahian. Ausartenek euren autoen argiak trukutzen zituzten abiada biziz biderik labainenetan, nora ezean galdu bailiren, urduri, azkar. Hiriko farolek argitzen ez zuten lekutik harantz, buru gaineko zero enmarkatutik harago iristearren ziztu batean alde egiten saiatzen ziren, bertan zerk itxaroten zien jakin barik. Sirenek ixiltasuna lagun izan zuten gau hartan hala eta guztiz, beraiek ere ixildu ziren arte bederen. Ez oihurik, ez negarrik ez zen entzuten kaleetan, alferrikako pausoen hots lehor eta abarrak eta pneumatiko leunen txistuak soilik, baxu antzean, tokadisko zahar baten orratz soinuaren antzera. Gerraren pregoilaria zen gehien entzuten zena, sirenotsa, Titanicen gau hartan hil ezkilen papera betetzera zertorrena.

Adjib artean ohean zegoen bakarrenetakoa izango zen ziurrenik, oraindik itsaso izoztuetan nabigatzen ari baitzen hamabiak jo orduko. Inoiz lehenago bisitatu ez zuen polo urrunean ari zen dantzan, jela urdinezko pista batean mutil ilehori baten besotan babesturik. Ondoan itsasontzi baten zuen hondoratzen, itsasontzi izugarri bat, joan eta etorrian jolasten zuten argi ñimiñoz josia, eta bera pozik zegoen, hala ere, sekula aurretik entzun ez zuen bals bat dantzatzen. Tarteka sirenotsak ere sumatzen zituen, baina ez zien jaramon gehiegirik egiten, laster bihurtu baitzituen bere azken orduko filmearen efektu berezi balsaren melodiara moldaturik, arratsean ikusitako pelikulan mahai txiki batean eserita literaturaz ezta-

baidan ari ziren gizon haiek ontzira ura sartzean bezala. Behar bada eurak ere Adjiben ondoko ontzian izango ziren, hondoratzen baina literaturaren ametsek eragindako heriotzean konten.

Amak agudo esnatu zuen, jeiki Adjib, gerra dator, amerikarren misilak, esan zion. Adjibek ez zion larregi ulertu, bere hamaika urte koxkor haiek ez zioten horrenbeste uzten. Hala ere, oroimenak iristen uzten zion garaietan bezala, amari itsatsi zitzaion inkontzienteki zer-bait dakienaren gisan, babes bila. Ttipiago, zenean antzo, osabaren etxera joango ziren haren lurpeko gela ilun eta hezean lo egitera. Urte batzuk lehenago osabak zulo bat egin eta gela bat moldatu zuen bere etxeko behesolairuan, eta euren babestoki bakar hura izan zen denbora luzez. Amak esan izan zion Adjibi berriz ere halakorik gertatuz gero ez zuela kanpora atera behar, bestela bere anaia bezala betirako geratuko baitzen lurpean. Urteekin konturatu zen Adjib lurpean geratzearena ez zela denbora kontua soilik.

Adjibek ez zuen lorik egin gau hartan. Itsasontzia aspaldi hondoratu zitzaion eta kanpoko burrunba eta ikara beroak izotzezko ametsa urtu zion. Gaur hartan Britainia Handiko hegazkinek ere eraso zuten bere hiria.

Anisa, zer gertatzen ari da, galdetu zion Adjibek bere lehengusinari hurrengo goiza iritsi bezain laster. Zazpi urte lehenago ere ezagutu zuen zer zen gerra, baina hartaz ez zuen kontu gehiegirik oroitzen. Horregatik eskatu zion bere lehengusinari berak zekiena konta ziezaion, hamalau urte izanik gerra askoz hobeto ezagutzen baitzuen.

Estatu Batuek eta Britainia Handiak erasotu gaituzte, erantzun zion Anisak, labur baina zehatz. Adjiben bu-

ruan ez zen halakorik sartzen, aipatu zizkion herri haiek Bagdagetik oso urrun geratzen ziren berarentzat, ezin zuen konprenitu zerk bultzatu zituen euren hegazkinak hiria bonbakatzera.

Eta zergatik, Anisa, esan zion gauzak behin betiko argitu asmoz. Ihardespena luzea izan zitekeela sumatu zuen, baina goiz hartan nahiko denbora izango zuten bategen hitz egin eta besteak aditzeko.

Estatu Batuek inbidia digutelako, hasi zen mintzatzen Anisa, inbidia baino ez. Munduaren jabe direla uste dute, baina oraindik badira zenbait herri amor eman ez dutenak. Gurea horietako bat da, Adjib. Beraiek itsasontzi handiak dituzte, Titanic bezalakoak?, bai, Titanic bezalakoak, eta hegazkin azkarrak, tankeak, soldadu mordoa... eta ez dute nahi beste inork haiei aurre egiterik.

Zergatik ez, galde egin zion Adjibek.

Esan dizut Adjib, inbidia dutelako. Guk ditugun armak entrega ditzagun nahi dute.

Adjibek momentu batez begiak Anisaren aurpegitik albo batera baztertu zituen, eta geldigeldi pentsatzeari ekin zion. Ez zuen denbora gehiegirik behar izan berriro begiak lehengusinarekin begirada ilun eta bustiari lotzeko.

Baina orduan, beraiek berriz erasotzen bagaituzte guztiok hilko gara, ezin izango dugu defendatu beraien aurrean.

Horixe da, bada, gertatzen ari dena, Adjib, horixe da gerra, atzo gaueko burrunba eta eztanden arrazoia, orain ulertzen al duzu, esan zion Anisak irrifar batez, garaipen txiki bat ospatuz bezala. Beno, ihardetsi zion Adjibek,

ulertu zuela adieraziz baina jakiteko gehiago bazena ondo zekiela garbi utziz. Hortan eman zuten goiz guztia bi lehengusinek, Adjibek eta Anisak, batek galdetu eta besteak erantzun, Hatduchjek, Adjiben amak bazkaltzeko ordua iritsi zela gogoratu zien arte. Abenduaren hamazazpi hartan lasai bazkaldu zuten osabarenean.

Egun hartan berandu arte lo egiten utzi zioten Adjibi, bezperan begiak itxi zituenerako ordu txikiak baitziren. Eztandarik eztanda igaro zuen gaua Bagdagek, eta zenbaitek ezin izan zuen deskantsurik ere hartu. Hegazkin soinu gorgarriak hartu zuen sakelan hiria, *Tornado* hegazkinen hots sarkorregi hark, burukominaren aurrekari leialak. Hala ere Adjibek ezin izan zion nekeari eutsi eta ia eguerdirarte aritu zen amets goxotan biraka. Amak hamaika t'erdiak pasata itzarri zuen, begiak gorriturik eta ahotsak dardarka.

Adjib, esnatu, ia eguzkia ere berriz badoa eta, esan zion irribarrez, besarkada estu bat eman eta negarrez hasi zen. Adjibek ez zuen ezer ulertzen, baina berari ere malako bat ostu zion amaren besarkadak.

Hegazkinek botatako misil batek Omarrek lan egiten zuen ospitalea harrapatu zuen gau hartan, eta metrailak betebete harrapatu zuen goizaldeko lehen infusioa hartzen ari zenean. Kanpoko espaloian jarri zuten beste hamabi lankide eta gaixorekin batera, eta etxeetatik lasterka etorritako batzuren laguntza izanda ere ezin izan zuten askorik egin beragatik.

Dagoeneko zenbait zelai jarri zituzten okerrenaren zain. Omar orde a Jainkoari begira lurperatu zuten zendu eta hurrengo egunean, abenduaren hamazortzigarrenean, bere aitaren ondoan.

Adjibek gau hartan aita galdu zuen, heste hainbat hurrek bezala. Gerraren eta beste zenbait zauriren minaren minez, auzuneko hirurogeita zortzi hilotzak taxi horietan eraman zituzten hiriko kanposantuetara, betiko atsedena har zezaten. Gau hartan guztiek egin zuten negar hirian hildakoen zorigaitza ikusiz eta hala ere, haien patu berbera desiratzen zuten oheetan dolorez madarikatzen ziharduten zauritu gehienek, oinazearen biktima zorigaiztokoenek.

Bagdag Madinat alSalam ere deitzen zutela behinola kontatu zion amak Adjibi, bera ttikia zenean. Madinat alSalam, bakearen hiria zen eurena, Jainkoak bere paradisu ttipia eraikitzeke aukeratu zuena. Haurragoa zenean ulerkor egin zitzaion amaren ipuina, baina orain nekeza zitzaion halako istoriorik sinestea. Basamortuko azeria bataiatu zuten operazioak bakearen hiria suntsitu nahi zuen bakearen ize-nean, eta dagoeneko bakearen hiritar ugari geratu ziren bazterrerera amerikarrek jaurti zituzten misilen ondorioz.

Gerrako hirugarren eguna zen artean, eta luzerako izango zela iruditzen zitzaion askori. Osabak familiarentzat jakiak ekartzen zituen bitartean, gainontzekoek otoitz eta negar egiten zuten Omarrengatik eta zetorrenagatik. Zauriak ireki nahi dizkigute zaurian, esaten zuen Hatduchjek zotin artean. Adjibek orduan galdetzen zion bere buruari oraindik amak bakearen hirian zeudela pentsatzen ote zuen. Ez zuen erantzunik aurkitu nahi izaten, eta galdera egin orduko Xerazadek utzi zion panpina horailarekin jolasten eta hizketan hasten zen. Jokaera humanoa, baina gairitu beharrekoa. Agian gerra bezala. Sinetsi beharrekoa zen artean Madinatal Salam bat izango zela noizbait. Tamalez azeri zahar eta indartsuegia zuten aurka euren oiloak babesteko.

Kalera irten nahi dut ama, aspertu naiz beti ilunpean. egoteaz, esaten zion Adjibek bere ama apurtuari. Korrika egin nahi dut, ez, bestela zure anaiak bezala lurpean amaituko duzu, orain horrela nago ama, eztabaida luzeak izaten zituzten Adjibek eta Hatduchjek. Anisa isilik egoten zen bien artean, ongi baitzekien zer zen kalera irteteko beharra izan baina itzalean egotera derrigortuta sentitzea. Bere baitan bizitzen ari zen hori. Adjibek negar egiten zuen, irten egin nahi dut, irten egin nahi dut, eta bere amak ez zuen isiltzerik lortzen, zaude isilik, hil egin nahi al duzu ala, nik kalera irten nahi dut. Azkenean aurpegia berotu behar izan zion Hatduchjek, baldin eta iskanbila hark bukaera izango bazuen. Kontraesana badirudi ere, belarrondoak amaituarazi zituen Adjiben negarrak. Malkoak bere kolkorako gorde zituen neskatilak.

Adjib, esan zion Anisak, zergatik egiten duzu negar, zergatik irten nahi duzu kalera, misil batek joko zaitu. Anisak esanda guztia zentzudunagoa iruditzen zitzaion Adjibi, eta behar bada horregatik hitz egiten zuen berak ere arrazoi handiagoz.

Anisa, nik lagunekin jolastu nahi nuen soilik, lasterka egin kalean gora eta behera, espaloian sokasaltoan aritu, baina amak ez dit uzten, erantzun zion Adjibek, negar egiten hastera doanaren aurpegikera berdinez.

Adjib, badakit orain ez dakizula non dauden zure lagunak, baina irteten bazara behar bada sekula ez duzu jakingo, eta beraiek, berriz, beti jakingo dute zu non zauden. Berehala ulertu eta sinetsi zituen lehengusinarenean hitzak, profeta batek bere diszipuluei esandako hitzak bailiren. Nik ere baditut lagunak, Adjib, baina lehendabizi nire bizitzari begiratu behar diot.

Baina Anisa, Jainkoak ez al du esaten besteengatik guztia eman behar dela, esan zion ustegabeko maleziaz Adjibek.

Batzuetan, zoritxarrez Adjib, norbere buruari baino ezin izaten zaio begiratu. Gerrak erakutsiko dizu hori, eta denborak emango dizu jakitera.

Xerazaderi bere panpina itzuli behar diot, Anisa. Otoitz egin ezazu bihar itzul diezaiozun, Adjib.

Astebete ez zen igaro artean, eta dagoeneko bonba eta eztanda hotsa nabarmen urritu zen Bagdagen. Itxaropenarekiko fidelitatea ez zen, hala ere, horrenbestekoa, eta kaleak oraindio mortu zeuden. Baina irratiak erasoei bukaera ipini zitzaien berria eman erduko erabat aldatu zen karriken bisaia. Jendeak argia ikusi zuen lehen aldiz hainbeste egun eta gero. Batzuk betirako geratu ziren argirik gabe. Adjibek lasterka egin zuen kaletan gora eta behera, espaloian sokasaltoan aritu zen, Xerazaderi bere panpina itzuli zion, otoitzetan sinesten hasi zen, eta auzoko zineman berriz ere filme bat ikusteko prestatu zen. Baina harantz hurbiltzen ari zen bezala gero eta beltzagoa ikusten zuen ingurua, amildutako etxeak, asfaltu erreka, usain lazgarria, eta zinema ere, egoera profitatuz, beltzez jantzita aurkituko ote zuen pentsatu zuen. Begiak itxi eta aurrera jo zuen, baina zorionez, ireki zituenean Titanic itsasontzia ikusi zuen aurrean, ondoan beste bi kartel. Arnas hartu zuen, poztu egin zen eta Titanic berriz ikusteko gogoia egiten hasi zitzaion, baina tamalez, bazekien ordutik aurrera gehiago kostatuko zitzaizela familiei eta gauei zinema aurreko espaloiko ametsetan bidaiatzea.

Bakardadearen miseria

Ander Fernandez Jauregi
Pasaia-Lezo lizeoa
Pasaia

*ematen dugun urrats bakoitza
norabide berebean ematen dugu,
ezezagun baina zirraragarri den
heriotza izeneko lekura.*

– Ez al dizut milaka aldiz esan kontuz ibiltzeko oinetako berriekin!, zer uste duzu, etxe honetan dirua oinetakoak erosteko besterik ez dugula, ala! *Plastt!* Beti berdin zurekin! Oinetako berriak erosi, plazan zure lagun zatar horiekin baloiarekin jolastera eramane eta beti guztiz apurtuak ekartzen dituzu! *Plastt!* amak ez dirudi zoriontsu aita joan zenetik, eta bere atsekabea nire masail gorrietan hustutzen du. Nik buruaz baietz egiten diot eta zaplastekoak ondo jasotzen ditut, mereziak dira eta eta azkeneko aldia izan dadila! *Plastt!*

Amak, beti bezala, zapatila berriak erosi dizkit, berdeak, baina oraino ez ditut hautsiko, ama zoriontsu ikusi nahi dut, lehen bezala, eta berriro ere berarekin hondartzara joan nahi dut aitari bisita egitera. Duela asko ez dut aita ikusi, ikusteko gogoia dut eta laster ikusiko dudala sentitzen dut, baina ez amak hondartza deitzen

duen lekuan. Nik badakit ez dela hondartza, ez dagoelako ez hondarrik ezta itsasorik ere, eta gainera harrizko monumentu pila daude, eta amak esaten dit hor dagoela gure aita, baina nik ez dut ikusten eta benetan ikusiko dudala sentitzen dut. Horregatik ez dut zapatila berriekin futbolean jokatu.

Ez dut ulertzen zertarako nahi dugun horrelako etxe, horrelako gortina, horrelako luxuak, gero zapatila mordo erosteko gai ez bagara, zertarako horrelako luxuak aita joan zenetik zoriontsu izateko gai ere ez bagara? Luxuzko gortina artetik begiratzen dut, zaparrada ari du eta luxuzko leihoan sortu den ahatsak hotz handia egiten duela esaten dit. Han behean Xabi eta besteak niri deika ari dira. Futbolean jokatzera doazela diote, frontoian itxarongo nautela. Ni ikustera baino ez naiz joango, ez dut jokatu.

Aupa lagunak, ez duzue ikusten ze eguraldi egiten duen? esan diet nik.

Hobeto, horrela dibertigarriagoa da esan du lkerrek.

Aizu, Zaldu, ez al duzu jokatu behar? Bat falta zaigu! bota dit Xabik.

Beno, ondo da, baina zapatilarik gabe jokatu dut hori bai ideia ona, amaren eta bion nahia beteko dut, futbolean jokatu dut baina zapatilak hautsi gabe.

Frontoi zahar bat, alboan zementozko plaza blai egin da, eta bertan haur batzuk baloi bati ostikoka, batzuek "Gool!", besteek "Falta!", baina guztiak zoriontsu. Haur bat hankutsik dago eta lurrera erortzen da, mareaturik dirudi eta ez oso osasuntsu, begiak irekirik ditu eta dardarka dago, ezer ikusiko ez balu bezala jokatzen du.

Hotz egiten du, eta azala bustirik sentitzen dut. Begiak irekirik ditut baina ez dut argi izpi bat besterik ikusten. Ama, non zaude? Orain behar zaitut!! Hotz naiz. Ez nau inork entzuten eta nik ez ditut dagoeneko oinak sentitzen, ez daukat oinik, ez daukat hankarik, ez daukat gorputzik. Arima naiz, arima galdu eta ahaztua, norabidea galdurik duen itsasontzi fantasma.

Gela hutsa, erdian ohe bat, gainean gorputz bat, gaztetasunaren edertasun eternoa, alboan emakume bat, heriotzaren iragarlea, eskuan, zapatila lehor batzuk. Emakumeak negar egiteari utzi nahi dio, zapiak tantoak botatzen ditu. Atea irekitzen da, gizon bat sartzen da behartutako aurpegiarekin, zerbait esaten dio, dizu emakumeari. Ezin duzu gehiago, hil nahiko zenuke, ohe hortan etzan, zure semea zuri begira ikusi. Edo, gutxienez, zure malkoek bere bihotza piztu dezaten, horregatik egiten duzu negar, zure errua da, bai. Guztia zapatila babo batzuen erruarengatik. *Saturrek jolastu nahi du, eh?, tori, hautsi hauek lehenengo.* Emakumeak zapatilak gorpuari botatzen dizkio eta ondoren korrika ateratzen da gela hutsetik. Gela isiltasunez bete da, leihoa pixka bat ireki da eta haize bolada bat sartu da gorputzaren ilea astinduz eta gortinak puztuz, belauntzi bat bailitzan.

Bidaiatzearekin amestu dut askotan, aitarekin amestu dudana bezala, eta azkenik ikusten dut beterik nire ametsa. Belauntzi batean noa, askatasuna arnastu dezaket, nire biriketari sentitu, haizeak nire aurpegiaren kontra jotzen du eta nire bizitza laburra berarekin darama pixkanaka, eta atzean, uretan ikus dezaket nire bizitzaren arrastoa, nire ama goxoaren aurpegia islaturik. Faltan botatzen dut egunero, momenturo nire atzetik dabilen emakumea.

Berrero ere gela lainotsuan sartu da, zerbait darama eskuetan, atzean bere bidearen arrastoa utziz doa, eta norabidea galdurik doa laino tartean ohe ondoko aulkian esertzen den arte. Gorputza begiratzen du, beti negarrez, *Saturrek nahikoa jolastu al du? Ez eh? Ah! Oinetakoak hautsi zaizkiola? Ez du axola, gehiago erosi ditut eta nire Satur maitearentzat. Tori, hartu hauek!* Emakumeak eskuetan zituen zapatilak gorpuari botatzten dizkio, beti negarrez. Gorpuak mugimendu txiki bat egiten du, hilkutxa deseroso batean egongo balitz bezala eta zentimetro batzuk bakarrik mugituko ahal izango balitz bezala.

Emakumeak ahoa irekitzen du, ez du ulertzen zer gertatzen ari den, malko bat isurtzen da bere aho barnean, hau dastatu ondoren aulkitik altxa eta gela iluna hutsik uzten du.

Tximeletak ederrak dira, benetan miresten ditut, bere kolore, bere harrokeria amaigabea, beren eboluzionatze-ko ahalmena. Arraroa benetan itsas barnean tximeleta bat aurkitzea, zortea agian, baina hain dira izutiak. Ez dut behatza mugitu besterik egin eta honek alde, nik berarekin jolastu besterik nahi ez nuenean, nahia eta ezina erakusten dute, nahia eta beldurra, desioa eta inpotentzia. Arraroa baita, sekulako behelainoa sartu da, baina nik ez dut lurrik ikusten, ez dut ezer ikusten, itsasoa eta nire belauntzi ederra baizik. Nire belauntzia, uretan islaturik ez da belauntzia, lau zaldi beltzez gidaturiko karroza zuria, karroza maitagarria, izugarria. Ez dakit nora noan, lemak berak hartzen du norabidea, norbaitek zuzenduko balu bezala, nire aitak zuzentzen nau agian kostalderik gabeko lurraldera, hondarrik gabeko hondartzara, han berarekin elkar nadin.

Emakumea eta gizona gela argitsuan sartzen dira, *mugitu da, mugitu da* emakumeak zerbait xuxurlatzen du eta malkoek bere aurpegia dizdiratsuago egiten dute, ederra-go. Gizonak gorputzaren eskua heltzen du buruarekin ezezkoa egiten duen bitartean, bere aurpegi abailduarekin emakume ederrari zerbait esaten dio. *Lasai emakumea, gainditzea lortuko duzu eta*. Emakumeak murmurioka jarraitzen du, bere ezpain lirainak mugituz, batbatean, bere buruaren gainean bonbila bat piztu da eta abiada itzelean gela iluntasunean murgildurik utzi du.

Gaua gainean erortzen ari zait, dagoeneko Letiziak, nire lagun Imanolek deitzen zuen bezala, bizidunen tronua bete du eta ur geroz eta nahastuagoetan islatzen da emakume ederrenaren irudia osatuz. Haizeak belak puzteari utzi dio, baina zaldiek tiraka jarraitzen dute eta abiada osoan goaz gure helmugarantz. Geroz eta paisaia ilunagoak aurkitzen ditut, eta azkenik lurra, badirudi azkenik gure bidaiaren bukaera heltzear dagoela. Lurralde iluna, negarrek errautsitako mundua aurkitu dut lehendabizi, eta ibai batean gora noa, eskubi eta ezkerretan bizitzaren bide amaigabearen urperatutako hainbat ontzi uzten ditudalarik. Lurra lokatz bihurtzen da gora goazen heinean eta ura gorrituz doa, sumendi batetik baletor bezala, baina korrontearen kontra goazen arren gu geroz eta azkarrago goaz, zaldiak ur odoltsuak erreko balitu bezala. Beldur naiz, ama, non zaude? Orain behar zaitut!! Beldur naiz. Hala ere kilimak sentitzen ditut nire barnean, jakinminak nirekin jokatu nahi duela sentitzen dut, jakinminak jaten nauela. Egongo al naiz berriro nire luxuzko etxean nire familia behartsuarekin?

Nire barnean orain arima besterik ez denaren hurbiltasuna nabaritzen hasia da, korrontearen kontra abiatzen da heriotzaren mendia zeharkatuz nik bidalitako Belea

bidea erakustera abiatu den bitartean. Laster elkartuko gara sentimenduak elikagai diren lurralde garai honetan, itxuraz beldurgarri, baina ongi ezagutuz gero erakargarri den lurralde honetan.

Berriro ere atea irekitzen da eta emakumea sartzen da bere negarrarekin, (beti berdin, ondoren datoz lamentuak). Sartu bezain laster leihorantz abiatzen da eta zapatila mordoa lurrean utzi ondoren, leihoa ixtera doanean txori beltz bat sartzen da barrura, nire belea. Emakume lirainak garrasi bat botatzen du eta zapatilak eskuan hartuta belea uxatzen saiatzen da, baina belea ohearen mastan pausatzen da, emakumeak harrapa ez dezakeen leku garaian.

Pausatu da bele bat trumoi hotsa entzun eta segituan. Egoera ulertzen hasia naiz, geroz eta gertuago sentitzen dut bukaera, edo hasiera agian? Dagoeneko lurraldeak ezagun egiten zaizkit, eguneroko ametsetan ikusitako paisaia ederrak. Aitak kontatutako istorioetan bezala. Aitak zioen bakoitzak bere bukaera aukera zezakeela, nolakoa litzatekeen imajinatu eta momentua iritsitakoan lau haitzara bota, *nik nire aitaren hondartzako monumentu bihurturik bukatu nahi dut!*

Gorpuaren garrasiekin Belea uxatu egin da, baina leihoa itxirik aurkitu du, gela urdinaren inguruan buelta batzuk eman ondoren berriro ere ohearen mastan pausatu da. Emakumeak ez dio jaramonik egin eta gorputzean ditu, dituzu finkatuak begiak, zure begi ederrak. Badakizu dagoeneko ezin duzula ezer egin zure semea esnatzeko, aspaldi joana da lurralde hobe baterako bidaian. Barnean sentitzen duzun korapiloa askatu nahian erosten dituzu zapatila horiek, zure negarrak ordezkatzeko, bai, ezagutzen zaitut.

Belauntzia kontrolatzen dut, nire monumentorantz zuzentzen dut abiada osoan. Gertu gaude, dagoeneko

nire luma beltzen tartetik ikus dezaket hondartza. Be-launtzia aurrera doa eta hondartzan geratzen da. Haur bat jaisten da bertatik, urduri dago egoera ulertzen duelako, aurrerantz abiatzen da eta norbaitek ongietorria ematen dio, bi muxu eman ondoren, haurrak sustraiak botatzen ditu, harri bihurturik, gorputzari agur esaten dio, arima behartsua. Nire hegaldiarekin aurrera jarraitzen dut, pozik nago lagun berri bat egin dudalako, hodeiekin jolas-tuz, haizearekin tirabiratan, benetako bizitza sentituz heriotzaren airea arnasten dudan bitartean.

Arima naiz, azkenik arima aske eta maitatua, edozein norabide har dezakeen bele liruragarria.

Kanposantu bat, bertan, beltzez jantzitako emakume traketsa zulo bati begira: eskutan, zapatila berdez *beti izan dira bere gustukoenak* betetako kutxa handia; poltsikotan, ezer ere ez; masailetan, malko gazitako ibai gozoak; zuloan, hilkutxa deseroso bat; barruan, gaztetasunaren edertasun eternoa. Zorigaiztoko emakume politikakaxa hustu egiten du zuloan, mimoz, polikipoliki, gustura, zerbait xuxurlatzen duen bitartean. *Beti izan dira zure gustukoenak, puskatu, puskatu lasai*. Nire emakumeak norabidea aldatu eta pareko monumentu batera abiatzen da, nire monumentura. Bertatik lore batzuk kendu eta berriak ipintzen ditu, ederrak, beti bezala, zu bezala. Hemen ere zerbait murmuratzen duzu. *Zuek gabe ez naiz ezer*. Nire emazte xarmantak gertuen dagoen aulkirako bidea hartzen duzu, beti izan zara nire gogokoena, beti maitatu zaitut. *Nik ere bai*. Emakumeak aldakak aulkian ipintzen ditu, poliki, kostatuko balitzaio bezala, (oraindik ernia zerri horrekin bueltaka) eta pixkanaka etzaten doa egunkari zikin batzuekin bere gorputz ederra estaltzen duen bitartean.

PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. mailak

Isiltasunaren oihartzuna

Kristina Aizpuru Segurola
Iraurgi ikastetxea
Azpeitia

Gorpu hila estaltzen zuen gorrigune lodi berak ezkutarazten zituen ahul izateari utzi zioten nire eskuak. Denbora luzean bizigabe nabarmentzen nuen bihotza, talkada bortitz etenezinek laguntzen zuten. Hainbat aldiz amestutako gogoak betetzeak asetasun azalezin baten hasiera sentiarazten zidan. Baina ezin nuen aiztoa jarein; indar osoz eusten nion oraindik egitekoa amaitu gabe bailitzan. Hilda bazegoen ere, nigan piztua zen mendekatze-ko desio sutsu hark bizirik zirauen. Lehenengo aldiko zailtasunik gabe lortu nuen berriro ere nire bi esku odolduen artean nuena altxatzea. Kanporatzeko gelditu zitzaidan amorru eta sumin guztiak, bata bestearen atzetik bularrera zuzendurik zihoazen labankadetan atera nituen barnetik.

Izua eta tristura besterik gabeko hogeita bat urteren ostean egunsentiak desberdina zirudien; eguzkiak mendealdetik irten izan balu bezala. Laino beltzek nire bizitzan egitekoak bukatu zituztela aurreikus nezakeen. Pozgarria zen haize indartsu batek nigandik urrunera eramane zituela sinestea. Oraindinoko bizimodu garratz hura guztiz aldatuko zitzaidan susmo gozo bat neukan.

Ezkontza egunetik saihestu ezineko senarraren zakartasun geldigaitza eta berekoitasun arbuiagarria ziren nire ondoan zirauten bakarrak; urteetan zehar jasan behar izan nuena. Era guztietako maitasunaren ordainean, eskertxarra, eta erantzun mesprezagarriak jasotzeaz gain, bere eskunaba gogorak izan ziren nire ubeldura mingarrien egileak. Bortizki luzatzen zituen ukabilak, niganaino heltzen zirelarik. Dardarka jartzen ninduten barneko trumoietan isladatzen zuen gaiztakeria. Bere irrikek zabalitzen zuten nire gorrotoa, aurpegi zurbil eta begi tristeen atzean gordetzen nuen. Oinaze etengabe haiek, beldur bukaezinak ziren niretzat.

Senarraren hilketa aurrez irudikatzerira iritsi nintzen. Neure gogoan eratzten nuen eszena behin eta berriz, behin eta berriz, etengabe. Nire nahi minak benetan burutzeko adorerik ez nuenez, irudimen bihozgogorraz baliatzen nintzen eztarriaren bukaerako korapilo askaezinetik libratzeko. Egiazkoa ez bazen ere, garaipenak handitasunez betetzen ninduen. Maiz murgildu ohi nintzen nire ihesbide bakarrean, neukan bizimodu latza eramangarri egiteko modurik errazena baitzen.

Tuntuna izan nintzen aldian behineko kolpe bakoitzaren ondoren, azkena izango zela agintzen zidanean, egia zioela pentsatzean. Eguna joan eta eguna etorri, gupidagabeko bere indarkeria zuzentzezinak torturatzen ninduen. Zauri ireki barkaezinak barnean pilatu zitzaizkidan.

Tratu samur batek elkartzen gintuela sinetsirik bizi nahi banuen ere, ez nuen menpean ninduen bere basakeriatik askatzerik lortzen.

Ematen zizkidan astinduak antsia kontrolaezinak ziren berarentzat. Horrek sutan jartzen ninduen, amorrazio

eta erretasunak gorputza zeharkatzen zidaten, burutazio ankerrak sortarazten. Berak berriz, leiho ondoko besaulkian jarririk zigarro kea zabaltzen zuen lasaitasunez.

Agerikoa zen ez zuela maitatua izan nahi; niri zegokidanez bete zuen bere nahia.

Erloju zaharreko kanpai hotsek, larunbat hartako hamar eta erdien berri eman zuten. Han nengoen ohe ondoan, zuri izateari utzi zioten maindireei begira. Sekula indarraren arrastorik txikiena erakutsi ez zuen emakumea erailketa baten errudun. Zenbat aldiz ito izango nituen bizitzako goibeldura, iluntasunak, masailetan beherako malako astunetan. Zentzutasunik gabeko konponbidea zen entzungor jarraitzen zuen gizon krudel eta gorrotagarriari nire egoera gordina azaltzea. Egia esateko, egin nuenak harrotasunez betetzen ninduen.

Ez zegoen argitasun handiegirik; pertsianetako zuloe-tatik logelara sartzen ziren goizeko eguzki izpiek pizten zuten zerbait ingurua. Inoiz gutxitan goxoa izan zen logela, hoztasunak betetzen zuen. Ingurune garratz hark nire bihozgabekeria areagotzen zuen eta hori atsegin nuen. Aspaldiko partez, isiltasuna zen nagusi gure etxean sarrailan giltza sartzen entzun eta atea ireki zen arte. Maialeni ez zion denbora asko eramanez iluntzen hasitako putzu gorri batek bere aitaren hilotza inguratzen zuela ikusteak. Momentu horretako erabateko ezintasunarekin lehian, garrasi eta deiadar indartsuenak ere, baliogabeak bihurtu ziren.

Lurretik altxatuz aiztoa askatu nuen, baina ahotik kendu ezin nuen pozez beteriko irribarreak salatu ninduen. Beragana hurbildu ahala, azkarragoak ziren atzerakak ematen zituen pausoak; ihesi zihoan. Laztura ikara-

garria azaldu zuen arren, banekien une hartan ezin zituela bere sakoneko sentimenduak agerian jarri. Maialen ni adina ikaratzen zuten bere eskunabek. Arratsaldeak etxe-ko bakardadean igarotzen zituzteneko oroitzapen beltzak zituen.

Galdera gogorra zen Maialenen begirada niri zuzendurik. Ez nuen azalpenak emateko gaitasunik; ezer esan gabe joaten utzi nion.

Behingoagatik, morroi izateari utzi eta boterea nabaritzen nuen. Hain astiro iragan ziren urteetan, koldar hutsa izan nintzen baina barneko ausardia mugagabe bilakatu zitzaidan bere jabetza eskuratu nuenean. Deabruak eramaten ez zuenez neronek zuzendu nuen beragana. Azkenean nagusitu nintzaion.

Eginaren helburua, bai neure, bai eta Maialenen sufrimendua bukatutzat ematea zen. Ulerterraza egingo ez bazitzaion ere, bion onerako zen guztia.

Gure lasaitasunak zituen mugak apurtu nahi nituen, noraezean zebiltzan gure buruak bere lekuan jarri, lurretik generabilen nortasun eta ohorea berreskuratu. Arazo gogaigarriaren amaiera zekarren hark.

Azken batean, ordea, damu nintzen. Damu nintzen heriotza azkarregi eta eztegi bat izan zuelako. Odol hotez egin nizkion irekiduretatik bere odol beroa kanporatzean, estuasun eta beldurrak ikusi eta negar zotin eta orroak entzun banizkion ere, ez zen nahikoa izan.

Damuturik nengoen bere bihotz taupadak isilarazi aurretik, eskuhankak lotu, eta mantsomantso errukirik gabe, larruazala eta haragia elkarrengandik bereiztu ez nizkiolako; min iraunkor baten atzetik, azken arnasa

neure atzamarrek lepoa inguratzen ziotela eman ez zuelako.

Bere haragi hotzek hotzikarak sortarazten zizkidaten bitartean, oraindik irekiak zituen begi beltzei begiratzen jarraitzen nuen pentsakor; hainbat eta hainbat botere sentipen izan zituen gizona ahultasunean eroria zen betirako.

Musika baino pista hoberik non?

Lorea Muguruza Sarasua
Pasaia-Lezo lizeoa
Pasai Donibane

Nabaria zen herri hartan berria nintzela, herritar guztiek begiratzeko ninduten, ez nekien non eros nezakeen ez ogirik, ez haragirik, ez egunkaririk ezta bananaririk ere. Izan ere, aste bete besterik ez neraman bertan.

Iruñako “Maleta bizkarrean” ajentzian, turismoko ikasketak amaitu ostean ateratako sosekin, gurasoen etxetik alde egin nuen hegoalderantz joaz. Herri guztiak arakatu nituen etxe dezentetxo bat aurkitzeko esperantzaz, nahiz eta, banekien zaharkiturik zen bat erosi beharko nuela. Hala gertatu zen.

Oraindik ere ikasi ez dudana herriaren izenak, ziur naiz Nafarroa osoko santu oroien izena zuena. Remiteetan hasierako hiru hitzak jarri ohi nituen soilik, bestela orrialde oso bat beharko bainuen eta udaletxera joan beharra izango bainuen izenaren fotokopiaren bila. San Francisco Javier... zen. Etxeak bi solairu zituen baita balkoi eder bat ere, herriko fraileen monastegira begira zena. Monastegia klausurako fraileena zela uste dut, izan ere ez bainuen inor ikusten sartu irtenik egiten. Eguneko ordu berezietan soilik entzun nitzakeen abesten.

Guztia zen ederra, ordu oro jasan behar nituen kanpai hotsak izan ezik. Sekulako zarata ateratzen zuten. Baina independente bihurtzeko grina hark ez zidan nire onerako zer izango zen hoberena ikusten utzi. Betiko lagunak atzean laga nituen, sendia, gaztetako mutil lagun ohiak, hainbeste maite nuen Iruña, larunbat gauetako martxa, gehiegi gogaitzen zuten kanpotarrak, San Ferminetako jendetza... dena galdu nuen nire etxea eduki nahi izatearren lelokeriarengatik. Erabakia hartu nuen ordea, ezin nintzen atzera bota.

Aste bat bakardadean igaro izanak asko tristatu ninduen. Herrian ez zen nire adineko neskarik, denek igarotzen zuten berrogei urteko muga, beraien astialdirako ekintza bakarra bizilaguna larrutzea zelarik. Herriko dena poto zorria aurkitu nuenean, baita erosketak egiteko burutazioa ere izan nuenean, Guardia Zibilaren kuartelean sartzea bezalakoa izan zela iruditu zitzaidan. Atso guztiak, prentsa arrosako kazetariak izango bailiran, ez zitzaizkidan bada nire bizitza pribatua jakin nahian hasi: zenbat urte dituzu? nongoa zara? mutil lagunik ba al duzu?... Orduan ulertu nuen gazteek herri txikietatik alde egiteko zuten joera!

Nire depresio hark iluntzean autoa hartu eta basamortu antzeko errepideetan barrena murgiltzera bultzatzen ninduen, abiadura bizian. Burua leihatilatik ateratzean haizearen zaplazteko gogorrak ongi sentiarazten zizkidan, masokista bihurtzen ari nintzen.

Arrats haietako batean taberna xelegre bat aurkitu nuen bide bazterrean, non arraza eta leku desberdinetako jende asko biltzen baitzen. Astean zehar kamioi gidariak izaten ziren gehienbat, gaua igarotzeko edo zerbait eda-

teko gelditzen zirenak. Hala ere, bazen bestelakorik ere, lasaitasun bila edo zerbait edatera soilik joaten ziren hiritarrak hain zuzen. Herritik berrogei kilometrora zen leku hark gauero emanaldi ezberdinak eskaintzen zituen: rock and roll kontzertuak, hitzaldiak, mus txapelketak...

Gau batean, ordea, erdi alkoholizatzeko bidea neramanean, bizitza erabat aldatu zitzaidan. Begiak ixtean oraindik ere musika haren erritmo erakargarria dut gogoan, tango bat zen. Ni barran nintzen eseririk garagar-doari begira eta nigandik bi metrotara mutil bat bereiz nezakeen. Hasieran erakargarri egin zitzaidan, bera ere edatera zihoala ohartzean ordea, nirera jarraitu nuen deus egin gabe. Nire pentsamenduetan nintzen murgildurik, nahi gabe hankekin hasi berri zen tangoaren pausu batzuk ematen hasi nintzenean. Batbatean, nire sorbalda biluzian esku sendo bat igarri nuen. Bira ematen saiatu nintzenerako gerritik heldurik ninduen dantzarako prest. Ustekabean harrapatu ninduen. Hala ere, dantzari ekin nion. Bere hatsa nire bekoki parean nabaritzen nuen, nire gerrian zuen eskuak berarengana estutzen ninduen, arnasa hartzeko zailtasunak nituelarik. Bere begi berdeek alde batetik bestera zulatu zidaten gorputza, ezpaineke aldiz, goxatu. Burua galdu nuen dantzaren joan etorrian, alde batetik bestera, bira, gelditu... gau guztia igaro genuen hala. Etxera gonbidatu nuen aspaldiko abstinentzia hautsiz. Izara artean galdu ginen, hurrengo goizean esnatu nintzen arte. Ez zegoen jada nire alboan. Desagertu egin zen amets bat lez.

Ohetik begiak itxirik nituela altxa nintzen, gizon ezezagunaren lurrina sudurrean barrena nola sartzen zitzaidan astiroastiro sentituz, gaueko tango hasierako notak entzun ahal izan nituenean ezkila bedeinkatu haien bi-

dez. Hainbeste denbora mutilik ukitu gabe egoteak erotuarazi ote ninduen? Auskalo...

Hurrengo aste guztian taberna hura behin eta berriz bisitatu nuen gizon ezezaguna noiz azalduko zain, ezer aurkitu gabe ordea. Topatu nituen aztarna urriak, tabernariak eman zizkidan bi eskutitz izan ziren, horrek bultzatu ninduelarik azalduko zenaren esperantza izatera.

Aste madarikatua igaro ostean berriro aurkitu nuen. Oraingoan ez taberna barruan, ate ondoan baizik. Ezer esateko astirik eman gabe izugarrizko muxua eman zidan bere furgoneta zaharkiturantz harrapaladan eramanez ninduelarik ondoren. Inguruko mendi tontortxo batera zuzendu ginen, han izarrak izan zirelarik egin genuenaren lekuko. Esmatzean nire etxeko ohean aurkitu nintzen biluzik ohean sartuta. Berriro ere alde egin zuen! Ez nekien nor zen, baina biziki maitemindu nintzen berarekin. Balkoira irten nintzenean, jada gizon ezezagunaren hitz samurrak bailiran entzuten nituen, ezkilak hasi ziren kantuan. Oraingoan Mikel Laboaren "Izarren hautsa" abestiaren doinua zela iruditu zitzaidan. Handiturik ziren balkoiko landareak ureztatzen hasi nintzen, batbatean eskutitz bat aurkitu nuelarik:

“ Kaixo Maddi,

Espero dut esnatu bezain laster aurkituko duzula eskutitz hau, nahiz eta badakidan eguna izorratuko dizudala. Orain aste bat ezagutu zintudan arren, bizitza guztian zehar zurekin egon naizela dirudi. Ikusi zintudan gau hartan erabat maitemindu ninduzun, zure begirada, mugimendua, ahotsa... garunean gauza ahaztezen zatian gorde nituen. Badakit, ez dakizula ez nire izenik, ezta bizilekurik ere. Izan ere, horrek sortzen baitu gure erlazio-

aren ezina. Entzun al dituzu ezkilak gure tangoa joaz? Eta “Izarren Hautsa”? Ba, ni nintzen. Frailea naiz, zure etxe aurreko klausurako monastegiko frailea, hain zuzen ere. Ez dut orain hiru urte emandako hitzik bete, zurekin oheratu bainaiz eta monastegitik alde egin baitut gezurrak erabiliaz aitzakiatzat. Zuregatik egin dut oro...

Ez dakit ez dudan nire buruaz beste egingo, arazo guztiak konponduz hala. Hala ere, ez ezazu zure burua zigortu, ni izan bainaiz arazo guzti honen errudun. Besterik gabe eta inoiz guzti hau konpondu ondoren zu ikus-teko esperantzan, Aitzol.”

Ezinezkoa zen. Behin mutil batekin erabat burua galdu nuenean, ez zen bada frailea! Berarekin hitz egin behar nuen, konpondu, ulertu, fraile izateari utz ziezaion konbentzitu...

Gaua arte itxaron nuen, baita monastegiko hesia igaro ere han sartzeko. Dena zen ilun, beldurgarri, irudiz betea. Bigarren solairuan topatu nituen logelak, Aitzol handiz jartzen zuenean sartu nintzelarik. Ez zen inor, betiko eskutitz famatu bat bakarrik maindire gabeko ohe gainean. Aitzol ihesi joan zen mundua ezagutzera, fraile izateari uko egin gabe, nirekin izan zuen abentura bertako kideei kontatuz. Bihotza erabat hunkitu zitzaidan, nahiz eta, berehala egin nuen topo sendagaiarekin. Bere bila joan nintzen ordurarte arduratzen ninduten gauza guztiak atzean utziz, bizitzan maite izan dudan gizon bakarraren bila.

Irlandan naiz guztia idazten, Aitzolen bila esperantza galdu barik eta emakumezkoekin oheratu ostean, alde batera uzten dituen gezurtero bat zela sinestu nahi gabe.



Burua tente mutilak!

Iraitz Agirre Aranguren
Almen ikastola
Eskoriatza

Hogei bat pertsona daude lur azpiko zelda txiki eta estuan, baina isiltasuna da nagusi. Guztiek dakite momentu batetik bestera beraien txanda izango dela eta ezin izango dutela honen aurka ezer egin. Isiltasun beldurgarrian ikarra, nostalgia eta itxaropenaren oroitzapenak besterik ez daude, preso guztien gogoetan. Inork ez du inor ezagutzen, kasualitatez guda batean edo beste ikusita, baina inork ez du ondoan duen adiskidearen izenik ezagutzen.

Lurperatutako zeldako sapaian zehar, lur zorutik behera labaintzen diren ttanttak jausten dira, lurrian eseririk, adorerik gabe dauden espetxeratuaren buruetara. Denbora kontatuko balute lez erortzen dira, segunduro, bukaera gero eta gertuago dagoela ohartaraziz bezala. Preso askok euren gogoeta beraien herrietara itzuli dute, aurreneko muxuko dantzalekura, erreka txit hotzera, taberna zaharreko mozkorretara... Malenkonia eta nostalgiaz kutsaturik, kanpoan beraien bihotza fusileko bala hotz batekin apurtzeko prest dauden borrarroak zain dituztela ahazten dute.

Ateko sarrailak zarata mingarri bat atera du eta hau zabaltzean, bibotedun kapitain erraldoi bat agertu da gil-

tzaperatuen parean. Lau iraultzaileren ordua iritsi da. Hogei gazteek hatzaparrak gurutzatu dituzte, oraingoa beraien txanda ez izateko erregutuz. Gurutze gorria ez daramaten hogei izen ageri dira eta kapitainak, ahal bezain pronto ezabatu nahi ditu zerrendatik. Poliki esan ditu aurreneko lau izenak, patxadaz, bere hitzek ondorio-rik ekarriko ez balute bezala. Izenak esaten joan ahala altxatu dira lau gazteak, beraien aurpegietan ikara nagusi delarik.

– Burua tente mutilak! esan du aurpegia odolezturik duen izkinako gizonak. Hotz esan du, gogortasun beldurgarri batekin.

Kapitainak begirada bortitz bat bota du ahotsa irten den izkinara, baina iluntasun beldurgarri horretan ezin izan du ezer ikusi. Ezker bekaina igorik, gorrotoz begiratu die bere bahituei eta ondoren, nazkaz listua bota du preso baten aurpegira. Ate herdoildua danbateko batez itxi du kapitainak indarraz.

Presoen artean isiltasuna nagusitu da berriz ere. Gehientsuenen buruan kapitainaren aurrean hitz egitera ausartu den adiskidea dago. Inork ez du ezagutzen, nahiz ziurrenik guda bat baino gehiagotan beraien gudakide izan den. Hizlariaren begiek asko bizi eta sofritutako bitza erakusten dute, makilkada eta egurtu gehiegi jasotako iragana antz eman daiteke begirada kementsu baina triste horretan. Buruan duen zauria bala batek eragindakoa da ziurrenik, bekokian duen urratu txikiak behintzat hori besterik ez duela adierazten baitu.

Ondoan eseririk duen mutil gazteak zuzenzuzen begiratzen dio ziurrenik beteranoa den gudu kideari. Harridura eta mirespenez begiratzen dio, bere kementasunak bel-

durtu berri balu lez. Beteranoa konturatu da dagoeneko eskuin aldean eserita dagoen mutilaren begirada neka ezinean. Ez du ezer esan ordea, bere begiak adiskidearen begietara zuzendu baititu. Mutil gazteak ez du begirada sahiestu ordea eta denbora batez, biak elkarri begira egon dira.

– Hiri zerbait gertatzen al zaik nirekin? galdetu dio azkenik nazkaturik zaharrenak.

– Ez noski. Ikaratuta nagok, besterik ez. erantzun dio gazteak.

Beteranoak artaburutzat jo du gaztea. Begi argiak ditu mutilak, esperantza kutsatzen duten begiak. Gerra madarikatu horretan berria dela iritzi dio zaharrak, nahiz badakien ez duela gehiago borroka egiteko betarik izango. Zaharrak bera ere gaztetan horrelakoa zela pentsatu du, edo sikiera honi da berak oroitzapenean duen borrokalariaren irudia. Adorea eta kemena, bizitza emateko prest etsaiaren aurrean. Gaztetako asmo horiek ordea argiegi erakutsi diote zaharrari bizitza ez dela hain erreza, behintzat ez dela hain erreza izan beretzako. Hainbeste urte, hainbeste sofrimendu... eta etsaiaren eskuetan eraila izateko.

Kanpoan hainbat garrasi entzun dituzte giltzapera-tuek. Hitzak ez dira argi iristen lur zoruko zoko horretara, baina guztiek dakite zer esan nahi duten. Banaka iritsi dira hitzak presoan belarrietara, poliki eta geldo. Hiru hitz besterik ez dira izan, zein baino zein beldurgarri eta ikaragarriago. Hitzak ordea azkarregi bukatu dira eta laster tiro burrunbada hotz eta luze bat entzun. Milaka balek ezerezera ihes egitean zuzendutako hots bera entzun ahal izan dute presoek zelda ilunetik. Balak ez dira ordea

ezerezero joan, beraien adiskide eta lagunen gorputz zigortuetara baizik.

– Madarikatuak! egin du kexu erdialdetik gazte batek, ahoan duen lastoa hortz artetik bota gabe. Nola izan daiteke hain bihotz gabea; nola begiak estalirik dituzten lau pertsonaren hiltzailea; nola esku artean fusil bat hartu eta defendatu ezinik dagoen gorputzari tiro egiteko gai. Nola...

– Hik ez al huke ba berdina egingo? galdetu dio zaharrak bere ohiko hoztasunarekin. Zuzen bota dio galdera, erantzuna pentsatzeko denborarik eman gabe.

– Baietz pentsatzen diat, baina guda honetan beraien dituk txarrak, ez gu. bota du gehiegi pentsatu gabe lasto jaleak.

– Ziur al hago? serio beteranoak. Nor txarra eta nor ona den esateko eskubiderik ba al duk hik ? Hemen bakoitzak berea defendatzen dik, bere askatasuna edo boterea. Baina guztiak gaituk biktima zein hiltzaile, hiltzaile zein hildako. Gerra guztietan galtzaile eta irabazleak egoten dituk, eta beti irabazlea izaten duk ona. Noski, inor ez duk konturatzen irabazle horiek ere galtzaile asko hil eta zapaldu dituztela, *gaiztoek* onak hil dituzten beste.

Isiltasuna nagusitu da berriro ere. Hainbat presori gogorregia iruditu zaie zaharrak esandakoa, krudelegia agian. Ondo dakite ordea errealitate gordina dela, hainbeste denboran ezkutatu dieten errealitatea. Gogorregia iruditzen zaie ordea leku madarikatu eta zikin horretan hiltzea, inork gogoratuko ez dituen urruneko leku horretan. Jakin badakite beraienak egin duela, borrokatu arren bizi itxaropenik ez dutela. Herritik oso urrun lurperatuak

izango dira, gorputzean bala hotz eta astunak ehortzirik. Inor ez zaie beraien *kanposantura* heriotz lorerik erama-tera joango, ez eta ohore elizkizunik egingo beraien omenez. Hori da beraien patuaren errealitatea.

– Laster etorriko dituk gure bilaesan du zaharrak bere beldurra ezkutatu nahian, kementasunak ez baitu beldurra baldintzatzen.

Ez da denbora asko pasa kapitain bibotedun berberak sarraila herdoildua mugituarazi arte. Borreroak, bere laguntzaileak atzean tinko dituen bitartean, zerrenda zabaldu du berriro ere. Lau adiskideren amaieraren ordua da. Polikipoliki zabaldu du izen zerrenda, guztiak urduritzeko ahaleginetan. Eztul txiki bat egin du izenak esan aurretik, baina hasi da dagoeneko lau gudariren izenak esaten. Aurreneko izena esan bezain pronto altxatu da erdialdetik Lasto jalea. Malko bat erori zaio masailetatik behera eta begira dituen adiskideei azken agurra emanaz, borro ikasle batek esposatu du kalera eramateko. Bigarren izena esanik, ate ondoan eserita dagoen gaztea jaiki eta begirada lurretik altxatu gabe irten da beste borroaren eskuetan. Hirugarrena esan bezain laster jaiki da Zaharra bere lekutik.

Mutilak, ez etsi. esan die oraindik itxaron beharko duten presoek. Gora begira hilko gara, eta etsaiaren aurrean ez belaunikatu.

– Kapitainak golpe bortitz bat eman dio masailean gudari zaharrari. Lurretik altxarazteko agindu dio ondoren bere borro txiki bati. Azken izena esaterako, presoan artean urduritasuna zen nagusi. Azken izena entzun da; Zaharra jaiki den leku berdintsutik jaiki da mutil gazte kementsua. Kapitainaren aurrera tinko joan da, beldu-

rrik ez diola adierazteko. Eskua kopetara eraman eta bere bandokoa balitz bezala zuzendu zaio kapitainari:

– Kapitaina! Yo hiltzeko prest. Bultzakada gogor batekin atera du kapitainak zeldatik eta indarrez, atea itxi.

Lau gudariak begiak estalirik atera dituzte kanpora. Bata bestearen atzean, eskuak burdinaz esposaturik, zakurrak bezala. Azkar nabari izan dute gudariak eguzkiak gogor jotzen duela, beraien heriotz lekura izerditan iritsi baitira.

Guztia prest dago; soldadu zein kapitaina, artillero zein ikusleak. Lau gudariak hainbat hitz aldatu dituzte beraien artean, kapitaina hiru aginduak ematen hasi aurretik.

– Preparados! esan du ozen.

– Mutilak, orain duk gure txanda. eman die agindua gudari beteranoak berekin hiltzera doazen adiskideei.

– Listos! eman du bigarren garrasia kapitainak.

– Gora iraultza!!! egin dute lau gudariak garrasi.

– Ya!!!

Ppuuummmmm....

Zerurako bide bi

David Martinez Zabalegi
Txingudi ikastola
Irun

Arratsalde lanbrotsu hartan ohiko kamioia pasa zen A Vieira ostatutik. Atea zabaldu eta gidaria jaitsi zen, atzean beste bidaiari batek jarraitzen ziolarik. Biak A Vieira ostatuan sartu ziren.

Ostatuaren barruan jubilatu bakan batzuk zeuden mahietan eseriak, musean ari zirelarik, edota zerbitzariarekin hizketan, beraien basoetara so. Kamioigidariak eta beste bidaiariak zerbait aldatu zioten elkarri eta ondoren bigarren hau zerbitzariarekin mintzatu zen:

– Me gustaría una habitación para esta noche. Sólo para dormir.

– Claro, señor. Serán mil pesetinhas. Por el acento no es gallego. De dónde...

– De Vitoria-Gasteiz.

Gasteiztarrak logeletara zeramaten eskailerak igo zituen eta pasiloaren bukaerako gelan sartu zen. Gela txikia zen, mahai bat, ohe bat eta telebista zahar batez hornitua zegoen. Balkoirik ez zuen, bai ordea leiho bat. Bertatik kostaldea ikus zitekeen, hondartzarik gabekoa,

labarrez osatua. Gasteiztarra ohean etzan zen. Bere ile luzeak atzera bota zituen eta bizar luze eta iletsua pixka bat antolatu zuen. Ohe atzeko paretan dagoen irudian finkatu zuen bere begirada: Bertan kristoren irudi bat zegoen. Gasteiztar bizardun tximaluzeak begiak itxi zituen, bietako batetik malko bat isuri zitzaion bitartean.

* * *

– Gazte, lan bikaina benetan azken hilabetean egin duzuna. Beraz, enpresa honek eta nik, zuzendariak, erabaki dugunez, karguz igoko zaitugu. Esan zuen tipo lodikote batek, Jimenez zuzendariak.

– Ohore handia izango da niretzat, jauna, ez dakit nola eskertu beti bezain ondo portatzea nirekin.– erantzun zion, beti bezain zuri, Andresek, eta “farias” bat luzatu zion bere nagusiari.

Andres 30 urteko gaztea zen. Bere aita diruduna zen, telekomunikazio enpresa amerikar ospetsu baten jabea. Andres bere etxean bizi zen, bakarbakarrik. Ez zen oso altua, planta onekoa, hori bai, baina edonorekin borrokan hastear zegoenean, ihes egitea komeni zitzaion. Ile narrekoa zen, eta marra buruaren alde batean egina zekukan. Hizkuntza arruntean “tropa” esaten diogunaren irudi bizia zen Andres del Rey: beti bere enpresan etorkizuna ziurtatua duen gazte bat, baina era guztietako azpijokoez baliatzen dena gero eta gorago joateko ... erortzen den arte.

Andres bere lagunekin elkartu zen kargu igoera ospatzeko. “Paradise” izeneko nightklubera joan ziren, Gasteizko erdigunetik urrun dagoen klub dotore eta ga-

restia. Kluba pisu bakarreko eraikuntza zen. Neonezko argiek apaindunik zeukan sarrera, Paradise izena irakurtzeko moduan. Barruan ez zegoen argi askorik. Tabernaren barrak etxearen laurden bat okupatzen zuen. Giro aparta zegoen eta zigarroen keak estaltzen zuen airea, hodei baten moduan. Barruko pertsonen janzkera dotoreak lekuari berari nortasuna ematen zion.

Lagun taldeak betiko kopatxoak hartu eta gero, Karlosek komunetara joatea proposatu zien. Karlosek zekarrena beti zen kalitatezkoa. Komunera joan ziren eta Karlosek patrikatik hauts zuri bat atera zuen. Andresek hatzaz pixka bat hartu eta ahora eraman zuen. “Ostia, motel! Ona ekarri duk! esan eta bere lerrotxoa prestatzeari ekin zion. Lagun taldeko batzuk, burumakur, komunetik irten ziren. Beste bi, hantxe gelditu ziren. “Zorionak, Andresito, bua! De puta madre nago! Tios me koloko...” eta lehenengoa lurrera etorri zen. Beste bietako batek esan zuen: “Eh tios! Que viene el gorila!” eta bestearekin alde egin zuen. Andres bere lagunaren ondoan gelditu zen: “Benga, joder, Karlos, zutituko haiz, bestela...” baina ez zegoen denborarik. Andresek azkar pentsatu zuen. Lagunari kokaina kendu eta komunean ezkutatu zen. Orduan seko gelditu zen.

Suspertu zenean, erlojua begiratu zuen eta, presaka, kokaina jakako poltsikoan ondo ezkutatu eta klubetik irten zen. Bere BMWko atea ireki zuen. Giltza biratu zuen. Mugimendu honekin batera euri jasa hasi zuen.

Klubetik kilometro bat urrundu zenean euriak oraindik gogor astintzen zuen. Orduan zorabiatzen ari zela sentitu zuen. “Koka izango da.” pentsatu zuen, baina ez zen gelditu, ez baitzen lehenengo aldia. Batbatean bere

BMWaren aurrean furgoi batek kontrola galdu zuen, baina Andresek ondo saihestu zuen eta aurrera jarraitu zuen beste karriletik. Orduan kamioitzar bat aurrez aurre zertokiola antzeman zuen. Bolantea biratu zuen. Beste behin ere biratu zuen. Eskuak ez zitzaizkion mugitzen. Lehengo zorabioa... Kamioia... Heriotza.

Andresek begiak ixteko ahaleginak egin zituen, baina ezin izan zuen: bere BMWaren aurreko kristalean, han Paradise klubetik pare bat kilometrotara, errepidean, Andresek argia ikusi zuen. Bere aurrean urrezko argitasun batetik ateratzen Jaungoikoa ikus zezakeen. Harenganako sinesmenik ez zuen inoiz sentitu, eta orain bere begien aurrean zegoen, airean leunki flotatzen, kapa zuriz estalirik: bere aurrean zegoen Jaungoikoa. Bere aurpegian bake keinu bat ikus zezakeen eta irrifar lagunkoi bat. Bere bizarra eta ile garbia airean leunki mugitzen ziren, dantzariak bailiran. Eskua luzatu zion Andresi. Honek ikusi ahal izan zuen gurutzatu zutenean sortutako zauria, jadanik itxia, eta eskua eman zion. Momentu horretan gaztearen bihotza aurrean zeukan Jaunarekiko fede osoz bete zen, eta bere salbatzailearekin batera, kotxetik irten eta errepidearen ertzean eseri zen, amets batean bezala.

– Hi, esnatzeko ordua duk, mutiko! esan zuen ertzain batek bere botarekin Andresen sabela joz. Honek begiak ireki eta kamioitzarra bere kotxearekin batera sutan kiskaltzen ikusi zuen. NANA eta gidatzeko agiria, mesedez, ez bazaizkizu hor barruan kiskali.

– Bai, ertzain jauna. Jainkoaren bakea beti zurekin egon bedi eta ez zaitzala bekatura eraman.

– Beno, beno. Ez da oso arrunta apaiz bat bostsei miloiko kotxetxoarekin ikustea! Ea...Andres Del Rey, 30 ur-

tekoa, bertakoa. Beno, zure jauntxoak lagundu zaitu. Kamioilaria erreta hil da eta.

* * *

Azaro hasiera hartan ohikoa zen Gasteizen euria eta hotza egitea. Andres eliza atarian zegoen, bere ingurura begira. Inor ez zegoela eta, apaizek erabiltzen zuten atzeko atera joan zen eta giltza atera zuen. Giltza Aita Altubek emandakoa zen, eliza hartako apaizak. Egun batzuk lehenago eman zion. Aita Altube gizon argala zen, eta oso zintzoa, Andresen ustetan. Honek otoitz egitera etortzeko premia izugarria azaldu zionean, apaizak, oso era atseginean, utzi egin zion. Andresen bizitza kristautasunean oinarritzen zen, pentsatzen zuen guztia, egiten zuen guztia, Jaungoikoa ikusi zuenetik.

Andresek giltza sarrailan sartu zuen, baina ezin izan zuen ireki. Denbora dezente pasa ondoren amore eman zuen, eta aterkia ireki zuen joateko asmotan. Baina emakume oihu batzuk entzun zituen eta atean geratu zen. Belarria atera hurbilduz susmoak egiaztatu zituen. Pauso batzuk atzera eman... eta krask! Sorbaldarekin ireki zuen atea. Sakristiako iraganbideetan zehar korrika abiatu zen eta...

Jarrai, bai, o! Nire gizona! Bai, bai! emakumezko bat tek arnasestuka.

Ixo! Emakumea, norbait esnatuko dun eta! zioen Altuberen ahotsak.

Andresek isiltasun osoz zabaldu zuen atea, eta bere aurrekoa ikustean, guztiz harriturik, begira geratu zen: egurrezko mahai baten gainean, emakume beltzaran bat

zegoen etzanda, guztiz biluzik. Bere ile kizkur beltza etengabe mugitzen zen, apaizaren mugimenduekin batera. Azken hau emakumearen gainean zegoen, biluzik bera ere. Andresek, bere Jaungoikoaren zerbitzari fidela izaki, ezin izan zuen bikotea txortan ikustea eraman.

Paretan zegoen zilarrezko Kristo gurutzatuaren irudi bat bi eskuez hartu zuen, pisu handikoa baitzen. Bikotearen aldamenara hurbildu zen. Emakume beltzaranaren ahoa eta begiak zabalzabalik geratu ziren eta gerria mugitzeari utzi zion. Aita Altube, gainean egonik, mugimenduan jarraitu zuen, arnasestuka. Batbatean gelditu egin zen. Zerbait hotza eta gogorra nabaritu zuen bizkarrean haragia ebakitzen eta hezurretaraino iritsi zitzaion. Emakumearen ahotik odolezko hari bat atera zen. Bi gorputzak gurutzeak zulatuak zeuden eta odol lodiz eta ilunez bete zen gela handi hura. Kanpoan, euri jasaren azpian, gazte batek korrika zeharkatu zuen eliz aurreko enparantza.

Handik pare bat astetara, Andres parke huts batean zegoen, historik gabeko zuhaitzetara begira, izkina ilun bateko egurrezko bankuan eserita, larruzko maleta bat ondoan zuelarik. Arropa arruntarekin zihoan: mendiko botak, galtza bakeroak eta alkandora batekin. Eskularruak eta txanoa zeramatzan jantzita. Ezpainak abiadura handiz mugitzen zituen, bere bizar luzexkaren azpian, baina ez zuen inongo hotsik ateratzen.

Andres pentsatzen ari zen. Inoiz ez zuen hain serioски zerbaitetan pentsatu beharrik izan. Inoiz ez zuen izan horren premiarik. Betidanik bere behar eta gutizia guztiak, gura izan zuen guztia, izan zituen. Inoiz ez zen noraezean ibili. Orain bai.

Lana galdu dut pentsatu zuen baina aitak bidalitako dirua jasoko dut. Espero dut bidaltzea. Lagunek erotzat hartzen naute, ez dute nirekin egon nahi. Justiziak hiltzaitzat hartuko nau Alta Altube eta bere maitalearen gorpuak topatzen dituztenean. Baina ez naiz damu. Zure izenean hil nituen. Orain arte izan ditudan gauzetatik ez dut ezer behar. Soilik Zu. Zu behar zaitut. Baina orain ihesi joan behar dut. Moisesek bere herriarekin Egiptotik ihes egin zuen bezala, ihes egin behar dut nik Ertzaintzaren eskuetatik. Baina nora joango naiz? Lurraren amaiera arte, ahal izanez gero...

Lurraren amaiera. Supitoki begiak ireki zituen eta poliki ahoskatu zuen: Finisterre. Finis, amaiera da, Terre, berriz, lurra. Finisterre lurraren amaiera zela pentsatu zuen. Txikitan Finisterreko etxe batean egon zela gogoratu zuen. Herri txikia zen ezkutatzeko aproposa, eta ez zegoen Gasteiztik oso urrun. Trenean Coruñaraino joan zitekeen eta gero gerokoak.

* * *

Handik egun gutxitara, Aita Altuberen hilketa estatu mailan zabaldu zen eta eztabaidagai bihurtu zen komunikabideetan. Andresek Finisterrera joateko momentu egokia zela pentsatu zuen, eta azaro hartako egunsenti batean, goizeko zazpitan, Miranda de Ebrorantz abiatu zen autobus batean. Oso jende gutxi zegoen barruan, eta Andresek lo kuluxka bota zuen, aurreko gaua elizako bankuan pasa baitzuen. Bidaiak ordu erdi eskas iraun zuen eta jarraian RENFEko geltokira abiatu zen, Coruñara eramango zuen trenaren zain. Edaritegiak eta kafetegiak zabalik zeuden eta usain gozoa zerien. Goiztiar ani-

tzen joanetorriak nabari zitzakeen Andresek. Leihatilara joan eta Coruñarako txartel bat eskatu zuen, xuxurlatuz. Andenean zegoen banku huts batean eseri zen, kafetegi batean erositako croissanta jaten zuen bitartean. Bankutik dirua ateratzeko denbora izan zuen lehengo egunean, baina diruak ez zuen inongo baliorik bere bizitza berrian. Bankuaren ondoan eskale bat zegoen lotan, manta artean kuzkurturik. Andresek, hura ikustean, Jaungoikoaren esana gogoratu zuen “Lagun ezazu beti urkoa” eta gizontxo beltzaran haren kapeluan 10.000ko bi bilete utzi zituen. Gizontxo beltzaran hark ahopetik erantzun zion, hegoamerikarren azentu goxoz: “Dios se lo pague, hermano, Dios se lo pague”.

Txiroak bere hitzak bukatu, Coruñarako tren iritsia zen eta andenean zegoen jendartetik pasa behar izan zuen bultzaka eta ahal bezala bidea irekiz. Azkenean lortu zuen bagoian sartzea, eta eserleku batean eseri zen, leihatilaren ondoan. Bere ondoan lekaime zahar betaurrekodun bat eseri zen, eskuetan “El País” egunkaria zabaldu zuelarik. Burua jiratu zuenean, lehenengo orrian hezurretaraino hotzikara sortarazi zion titularra irakurri zuen Andresek: “ Resuelto el caso del asesinato del padre Altube”. Ezinegonak ez zuen bere logura garaitu, ordea.

Andres esnatu zenean, leihatilatik Leoneko paisaia ikusi ahal izan zuen. Paisaia laua zen, eta trenbideetako bi aldeetara azalera txikiko basoak zeuden. Bere leihatilatik Orbigo ibaia ikus zezakeen. Ibaiaren ertzak izozturik zeuden, kanpoan hotz handia egiten zuenaren seinale. Ondoko lekaime zaharrak utzia zuen bere lekua eta baita egunkaria ere, baina Andresek ez zuen zabaltzeko adorerik izan. Bere ondora gizon handi eta zabal bat, burusoila

eta biboteduna, eseri zen. “Bad Religion” taldearen kamiseta bat zeukan.

Andresek bere maletan zeraman labana hartu zuen, baina egunkaria ikustean eskua lasaitu zuen. Oso nekaturia zegoen.

Betanzos herritik hurbil, bere geltokirako gutxi falta zen. Bere gorputz osoa luzatu zuen giharrak suspertzeko eta zutik jarri zen, eskularruak eta txapela jantzi eta maleta eskuan zuela. Treneko altabozetik Coruñako geltokian zeudela entzun zuen eta aterantz zuzendu zen. Presaka geltokitik aldendu zen eta konturatu zenerako Coruña-ko hiriaren erdian zegoen.

Bazkalordua zen gutxi gora behera, eta trafikoa nahiko eskasa zen. Eraikuntza altuak zeuden, bata bestearen ondoan, umeak eskolatik etxerako bidean zihoazen. Eraikuntzen behekaldeko solairuetan taberna eta taska ugari zegoen, arropa denda eta bestelakoekin batera. Luzaroan egon zen ibiltzen Andres, arraroa egiten baitzitzaion hiria. Finisterrera joateko moduan pentsatzen zegoen, eta bere ondotik pasatzen ziren umeei begiratzen zien, erantzun baten bila bezala.

Aurrera abiatzen zen moduan, etxeak gero eta urriagoak ziren, eta kresal usaina gero eta indartsuagoa. Arrantza portuan merkatal ontzi handiak eta txalupak eta belauntzi txikiak nahasten ziren. Portuko ertzetan arrantzale zahar batzuk hizketan ziharduten beren amua kainaberaz uretara botatzen zuten bitartean. Beraien artean galizieraz hitzegiten zuten eta Andres haien aurretik pasatzerakoan batbatean isildu egin ziren. Andres horretaz ohartu eta Finisterrera joateko moduz galdetu zien. Arrantzaleek esan zuten joateko bide bakarra errepidea

zela, baina ez zutela inor ezagutzen Andres eraman zezakeenik. Andresek haietako bati bost milakoa luzatu zionean, honek bere bizar gorrizuriska ferekatu zuen, bere marinel kapelua irmo egokitu zuen eta berarekin etor zedin esan zion Andresi.

* * *

Nire logelatik Finisterreko itsas labarrera begira nago. Bizarra eta ile luzea pixka bat antolatu ditud eta, etsiturik, maletatik poltsatxo bat atera eta ohe ondoko aulkian eseri naiz. Gorputza dardarka hasi zait. Eskerrak arrantzaleari! Kamioian ekarri nau eta bost paperengatik gramotxo bat eman dit. Aspertuta nago, nekatuta, etsituta. Jaungoikoaren zerbitzura egon naiz. Dena galdu dut eta nire bizitzak ez du zentzurik. Beno ba, “raya” hau zuri eskainia, Jesusito. Kokaina mahaian zehar zabaldu dut. Zapore bikaina dauka. Paradiseko gau hura gogoratu dut. Karlos eta lagun guztiak. Poltsikotik kanutoa atera dut eta kokaina guztia barneratu. Nire gorputza guztiz erlajatu da eta aulkitik behera erori naiz, burua lurraren aurka kolpatuz. Entzumena galtzen hasi naiz eta zurrumbilo baten barruan banengo bezala sentitu naiz. Arintasun zoragarri bat sentitu dut eta arnasa hartzeko beharrik ez dut sentitu ere egin. Begi zabalik egon naiz zenbait segunduz, eta pentsamendu bat trabatu zait: oraingoan salbatuko al naiz heriotzetik? Eta irribarre bat bota dut...

Arratsalde lanbrotsu hartan, ohiko kamioia A Vieira ostatutik aldendu zen errepidean zehar. Ostatuaren barruan jubilatuta bakan batzuk zeuden, musean ari zirelarik, edota zerbitzariarekin hizketan, beren basoetara so.

Björkeport maldizioa

Idoia Goikoetxea Zabaleta
Loinazpe institutua
Beasain

Olatuek indarrez kolpatzen zituzten itsas labarreko harriak. Iluntzen ari zen eta euri lanbroak ikusgaitasuna are gehiago zailtzen zuen. Martin Hansenek bere beribileko haizetako garbigailuari eragin eta abiadura gutxitu zuen. Lehenengo aldia zen Blekingeko konterria ikustatzen zuela baina urduri egoteko arrazoia ez zen hori, bere aintzinako irakaslea, Wergeland jauna, berriz ere ikusteko ideiaren aurrean egotea baizik.

Martin nerabe zela hasi zen Wergeland jaunaren klaseetara joaten. Laster nabaritu zuen mirespena eta erakarpen berezi bat irakaslearekiko, eta honek, ez zuen denbora luze behar izan gaztearen gaitasunez ohartzeko. Klaseak amaitu ostean, solasaldi luzeak izaten zituzten eta beraien arteko adiskidetasuna zuhaitz baten modura hazi zen. Martinek ez zuen bere aita ezagutu, eta unibertsitatean emandako urteetan, Wergeland jauna aita izan zen berarentzat.

Urteak igaro ahala, gaztaroko amets guztiak ibilitako bidean zehar galduta gelditu ziren, eta hogeita hamabost urterekin, Martinek bizimodu arautu eta monotono bat

zeraman. Beraz, Wergeland jaunaren eskutitza jaso zue-
nean, bihotzak jauzi salto izugarri bat eman zion. Werge-
landek ez zuen Uppsalako Unibertsitatean ezagututako
gazte ahul eta herabea ahaztu eta gainera, Karlskrona hi-
ritik gertu zuen etxean denboraldi bat igarotzera gonbi-
datzen zuen, bere liburuan laguntzen zion bitartean.

Kotxeko bonbilak ematen zuten argi izpiak ziren aur-
kientza haietako argi iturri bakarra. Martinek leihatilatik
kanpora begiratzen zuen, herri bateko argiak ikusteko as-
moz, baina bere ahalegin guztiak alferrikakoak izan zi-
ren. Bakarrik ez sentitzearren edota entseiu baten modu-
ra, ahots sakonez esan zuen:

– Kaixo, Wergeland jauna. Zer moduz zaude?

Errepidea begiratzeari utzi gabe, zigarro bat hartu,
ezpainetara eraman, eta piztu egin zuen. Abiadura mu-
rriztu zuen berriz ere. Automobileko argiak errepide er-
tzean zegoen iragarki bat argitu zuten eta Martinek arreta
handiz begiratu zion: ez zitzaion asko falta bere norakora
iristeko. Ezkerreko eskuaz zigarroa hartu, eta ordulariari
begiratu zion: zazpiak eta hamar ziren. Minutu batzuk
barru, bihurgune batetik atera orduko, Martinek egurrez-
ko etxea ikusi zuen pinu artean eta sentipen aringarri bat
nabaritu zuen bere barrenean.

Arratsaldean bertan, sei eta erdiak aldera, Georg Wer-
geland bere liburutegian aurkitzen zen, pipa bat erretzen
eta idazmahai gainean kokaturiko argiontziak argitzen
zuen esparru txikiaren erdian zegoen liburu bat irakur-
tzen, bere kulunkaulkia aurrera eta atzera mugitzen zuen
bitartean. Gela ilunpetan zegoen. Haritz egurrez estalita-
ko hormak liburuz gainezka zeuden eta libre gelditzen
ziren hutsune isolatuak zaharkitutako markoetan sarturi-

ko argazkiek betetzen zituzten. Gelako txokorik ilunean, apal baten gainean, beirazko kaxa batean sarturik, ehizazizpa bat zegoen. Gela isiltasun sakon batean zegoen sartuta eta hau nabariagoa egiten zen ordulariaren tiktak arautu eta geldiezinaren ondorioz. Euriak gogor jotzen zuen leihoaren kontra agerraldi honi doinu hits bat jarritz.

Batzuetan, begirada liburutik altxatzen zuen leihora zuzentzeko, pinuak geroz eta ilunagoak zeuden gaueko zeruaren aurka. Wergelandek pipako kea hasgoratu eta begiak itxi zituen, Martin Hansenez pentsatzen zuen bitartean. Ondoren, liburua hartu eta irakurtzen jarraitu zuen. Ordu erdi barru, motor baten hotsa. entzun zuen geroz eta gertuago eta irrifar egin zuen. Arkupera atera eta kotxeko argiak pinuetako enborretan proiektatzen zuten zirkulu erdia begiztatu zuen.

Martinek bere autoa Wergeland jaunaren beribilaren ondoan gelditu zuen, atea itxi eta maleta eskuan zuela etxerantz abiatu zen. Bi gizonak elkar besarkatu zuten eta Wergelandek etxe barnera pasarazi zuen. Bere gela erakutsi zion eta Martinek poltsa aulki baten gainean utzi zuen.

– Nekatuta egongo zara bidaiia luze honen ostean. Eroso jarri, Martin, zure etxean zaude. Hemendik, Martin, eseri hemen!

Jangelako mahaiak eseri eta berriketan egon ziren afa-riak iraun zuen bitartean, ez ziren isildu. Jangelan argia leuna zen. Tximinia bat zegoen piztuta, honen gainean koadro bat eta pipa bilduma bat. Afaltzen ari ziren mahaitik ez oso urruti, sofa baten ondoan, mahai baxu bat beste argiontzi bat –harri urdinez eginpiztuta baita ere.

Wergelandek botila bati kortxoa kendu, bi edalontzi bete eta topa egin zuten.

– On Wergeland, zure eskutitzean zure liburuan laguntza behar zenuela esaten zenidan, ez da?

– Noski. Lasai egon, ordaindu egingo dizut eta, Martin. Nik dagoeneko ez daukat adinik ikerketak egiten ibiltzeko, beraz, zuk egingo dituzu nire izenean. Liburuan eskandinabiar saga baten historia azaldu behar dut.

Martinentzat Wergelanden hitzak losintxa bilakatu ziren. Aditzen zuen bitartean, parean eserita zuen gizonaren aldaketetan pentsatzen hasi zen. “Ez da asko aldatu. Bisaia barea du eta begirada maitagarria eta azterkorra aldi berean” esaten zion bere buruari.

– Gogoratzen al duzu zer esaten zuen Tolkienek literaturari buruz, Martin?

Martin Wergelanden irrifarre misteriotsuari begira gelditu zen une batez eta nerabe bat zen urteetan bezala sentitu zen: gorrotatu egiten zuen bere irakaslea iruzurtzea.

– Tolkienek honakoa esaten zuen: “Literatura 1.100. urtean eten zen, ondoren, liburuak egon dira soilik.

– Bai jauna, horixe zen esaten zuena Wergelandek etenaldi bat egin zuen. Burutu behar dugun lanak ez dezala gai honen bibliografiaren gainean hauts gehiagorik bota. Gure lanak hauts guzti horren tartean dizdira sortu behar du, esaldi hori deuseztatuz.

Martin tximiniako su pindarkatua begiratzen ari zen. Bere burmuinera Inklings klubeko beila literarioak etorri zitzaizkion. Wergelandek parte hartu zuen bilera haietan,

Lewis, Tolkien eta beste egile ospetsu batzuekin batera. Martinek, intelektual menturazale horretatik oso urruti zegoela pentsatu zuen eta tristatu egin zen. Ardo traskada bat edan eta esan zuen:

– Wergeland jauna, ni idazkari soil bat baino ez naiz. Orain dela urte asko hasi nintzen lan aspergarri eta gaizki ordaindu hori egiten eta...

– Hori txorakeria baino ez da, Martin esan zuen Wergelandek doinu destaina azaltzen zela bere ahots leunean.

Afaldu ostean, liburutegiko iluntasunera sartu ziren. Besaulkietan eseri eta egunsentira arte iraun zuen solasean murgildurik egon ziren, zigarro bat beste baten atzetik erretzen zutelarik. Wergelanden hitzak zoramen kutsakor bat jariatzen zuten ingurunera. Noizean behin isildu egiten zen. Martin isilune hauek oso misteriotsuak zirela uste eta hauek ezkutitzen zuten esanahian pentsatzen hasi zen.

Solasaldia erabat agortu zenean, adio esan eta bakoi-tza bere gelara abiatu zen. Maletatik, emakume baten argazkia atera, musu bat eman eta ohe ondoko mahaiaren gainean ipini zuen. Leihotik begiratu zuen: pinuen ziluetak ilargiaren aurka ebakitzen ziren. Zuhaitz baten adarrean hontza ikusi zuen. Martini hontza begira ari zitzaiola iruditu zitzaion. Ez zegoen gustura begirada finko horrekin eta supituki itxi zuen leihoko errezela. Ohean sartu zen baina ezin zuen lorik hartu.

Goizean, Martinek begiak ireki zituen, gela begiratu zuen eta minutu batzuk igaro ziren non zegoen ohartu zen arte. Ohean etzanda egon zen denbora batez eta azkenean jeiki egin zen. Errezela ireki eta begiak itxi egin behar izan zituen, leihotik sartzen zen argitasunak begiak

erretzen baitzizkion. Mahai gainean utzitako erlojuari begiratu eta berandura arte lo egin zuela ohartu zen. Logelatik atera eta etxe guztia miatu zuen Wergeland agurtzeko asmoz, baina ez zuen bere irakaslea aurkitu. Bere beribila kanpoan ez zegoela ikustean, inguruko herri batera joana izango zela pentsatu zuen.

Komunera joan, ur beroaren iturria ireki eta dutxa bat hartu zuen. Ondoren, arkupea joan eta nagiak atera zituen, goizeko egurats freskoa arnastuz. Zerua urdinurdin zegoen eta leku hura, leku guztietatik urruti zegoena, liburu bat idazteko lekutik akatsgabeena zela iruditu zitzaion. Sukaldera itzuli eta kafea berotu zuen. Gosaldu eta gero, liburutegian sartu eta apaletan jarritako liburu batzuen izenburuak irakurri zituen. Gero, apal batean zegoen argazki bat hartu zuen: Lewis, Wergeland, Tolkien eta Martinek ezagutu ez zuen gizon bat. Ondoren ohartu zen argazkian azaltzen zen gela Wergelanden liburutegia zela. Inklingsen gordelekuetako bat pentsatu zuen Martinek, argazkia bere tokira itzuliz.

Liburuak aztertzen jarraitu eta azkenean, Beowulfen ale bat hartu zuen. Besaulki batean eseri, liburua erdialdeko orrialde batean ireki eta beste norbaitentzat irakurriko balu bezala hasi zen:

“A este espíritu cruel le llamaban Grendel
Este desdichado ser ha habitado desde
[hace mucho tiempo
En la tierra de los monstruos
Desde que el Creador los expulsó
A él y a toda la estirpe de Caín”

Irakurtzen jarraitu behar zuen baina auto bat gerturatzeko zela entzun zuen. Liburua itxi eta zigarroa hasgoratu

zuen begiak itxita zituela. Wergeland etxean sartu zela aditu eta sukaldera abiatu zen.

– Egunon, on Wergeland esan zuen, poltsa batekin laguntzen zuen bitartean.

– Kaixo Martin. Egun zoragarria, ez da? Tori, hau zuratzat da.

Eta bilgo bat eman zion. Martinek papera kendu eta Tolkienen “El Silmarilion” liburu bat zela ikusi zuen.

Eskerrik asko.

Ez horregatik, mutil. Hilabete baterako ekarri dut janaria gutxienez. Ibilaldi bat egitea atsegin al zaizu?

Etxeko atea giltzaz itxi eta basoa zeharkatzen zuen bidezidor batean hasi ziren ibiltzen. Lurrean argi eta itzal orbanak nabariak ziren eta hosto lehorrek hanken azpian kirrika egiten zuten.

– Arnasa sakon hartu, Martin esan zuen Wergelandek irrifartsu. Gelditu eta eskua zuhaitz baten enbor zimurtuan bermatu zuen.

Martin, bere aurrean zuen gizonaren bizimoduan pentsatzen jarri zen: mundu guztietatik bakartuta eta izadiarekin harreman estuan. Bere irakaslearekiko bekaizkeria sentipen bat nabaritu zuen, baina segituan baztertu zuen bere buru barnetik.

– Keltar druidentzat zuhaitzak jainkoak ziren esan zuen, eta Martini esaldi hori gehienbat zuhaitzari zuzenduta zegoela iruditu zitzaion. Bere buruari galdegin zion, gizon horrek, basoan bakarrik aurkitzen zenean, zuhaitzei hitz egingo ote zien. Tarte batez, basoan zehar ibili

ziren eta ondoren, itsasoko ur urdina azaldu zen, basoko berdetasuna bat-batean moztuz. Bi gizonak gelditu eta isilik begiratu zituzten itsas hegiko labar latzak, itsaso suarraren marrua, olatuak harrien aurka lehertzean sortzen zituzten apar txuriko hodeiak... Wergelandek esan bezala, aurkientza hori arrandia zen. Goizero etxe inguruko bidezidorretan zehar ibilaldi luzeak egiten zituzten, ostean, etxera itzuli eta liburua idazten egoten ziren. Egunak arratsari lekua uzten zion eta honek gauari eta honek berriz ere egunsentiari. Goiz batean, bi gizonak ibilaldi bat egiten ari zirela itsas bazterrean, Martinek hizketa tupustean eten zuen:

– Zer da hori?

Basoko agerrune batean, hiru metro eta erdiko monolito bat zegoen.

– Ah, Björketorp harria esan zuen irakasleak. Etorri, erakutsi egingo dizut.

Wergeland jauna monolitora gerturatu eta esku bat ipini zuen bere gainean, izaki maitatu bat agurtzen egongo balitz bezala. Martinek birak ematen zituen harriaren inguruan, ildo batzuk ukituz, idazkun bat baitzuen.

– Runak esan zuen Wergelandek idazkera ezkutu eta liluragarria. Bikingoek jarri zuten harri hau hemen, zazpigarren mendearen inguruan. Ikaragarria, ezta?

– Idazkun honen esanahia argitu beharra daukagu esan zuen Martinek, eta berehala ohartu zen lehenengo aldia zela Wergelandek esandakoari jaramonik egiten ez ziola.

Jakako patrikatik koaderno bat atera eta ikur misteriotsuak kopiatzen hasi zen.

Ordu bete barru, basoa zeharkatzen zuten etxerako bidean, solasaldi bizi batean murgildurik. Hizketaren gaia hartokaren inguruan zebilen eta Martin oso kitzikata zegoen, mezuaren esanahia argitzeko burutapenaren aurrean. Wergelanden ustez, idazkuna lagungarria izan zitekeen ikertzen ari ziren eskandinabiar sagen misterioa azaltzeko.

Etxera iritsi, eta denborarik galdu gabe, liburutegira zuzendu ziren. Wergelandek liburuki batzuk aukeratu eta idazmahaiaren gainean utzi zituen. Liburu haiek, idazkera runikoari buruz hitegiten zuten: mintzaira sakratu bat, parada berezietan bakarrik erabiltzen zena. Bikingoek ere “runak botatzen” zituzten beraien patua ezagutzeko asmoz. Bi gizonek arrasti osoa eman zuten irakurtzen. Oharrak hartu eta Björketorp arrokan adierazitakoarekin erkatzen zituzten. Hiru egun lanean eman eta gero lortu zuten edo Wergelandek lortu zuen, zehatzmehatz esanda idazkunaren lehenengo zatia argitzea:

“Hementxe daukat runa boteretsuen esanahia”, eta honen jarraipenetik bi hitz lortu zituzten: “alxor” eta “betirako”.

Gau horretan, Martin agurtu egin zen, baina Wergelandek lanean jarraitu zuen, bere idazmahaiko argiaren laguntzaz. Erlojuaren tiktaka besterik ez zen entzuten etxean zehar. Liburu bat beste baten atzetik begiratzen zituen eta batzuetan ohartxoak hartzen zituen bere koaderno beltzean. Goizeko hirurak aldera, Wergeland supituki jaiki zen bere aulkitik. Izaturik zegoen eta gela ezezaguna izango balitzaio bezala begiratzen zuen. Gero era arautu batean arnasten saiatu zen, lasaitzeko asmoz. Idazmahaira hurbildu, koaderno hartu eta lanpara itzali zuen.

Martin ohean etzanda zegoen baina begiak zabalzabalik zituen. Hitz bat durundaka zebilen bere buru barenan: altxorra. Ia ziur zegoen etxe ondoko basoan, nonbait, altxor bat zegoela ezkutaturik. Bere andregaiari bidaia hura egin behar zuela esan zion unean bizitako eszena garratza etorri zitzaion gogora:

– Hori da, joan zaitez. Ez daukagu dirurik ezertarako eta jauntxoak oporrak hartzen ditu.

Zuela urte asko zuten ezkontzeko asmoa baina zuten diru eskasarekin ezin zuten ezkontzan pentsatu. Altxor hura oraindik basoan egonez gero, berak aurkituko zuen. Hori izango zen bere arazoan konponbidea. Martinek mahaiak haztatu, lanpara piztu eta ohean eseri zen, emakumearen argazkia begiratzen zuela.

Aurkitu egingo dut, eta zuretzat izango da.

Hurrengo goizean, Martin jantzi eta liburutegira joan zen. Wergeland jauna ikusi zuen bere idazmahaiaren eserita. Martin gerturatu egin zitzaion eta bere liburuan lanean ari zela ikusi zuen.

– Kaixo, on Wergeland.

Wergeland, bere agerreraz ohartu ez zela, asaldatu egin zen. Biratu eta esan zuen:

– Egunon Martin. Berandu arte egon zara lotan. Kafe katilukada bat ekarriko dizut.

Martinek mahai gaineko izkribuak begirada zorrotzez miatu zituen.

– Ez al didazu haitzeko idazkunaren esanahia argitzen lagundu behar?

Begira Martin. Unibertsitateak nire liburua idazteko dirulaguntza bat ematen dit, baina horren truke, epe batzuk bete beharra daukat. Ahal dudan neurrian lagunduko dizut baina ezin dut...

Ja –esan zuen Martinek.

Liburutegitik atera eta sukaldera joan zen. Gizon mardikatua, pentsatu zuen Martinek, sukaldean biraka zebilen bitartean, zerbaiten bila ibiliko balitz bezala. Bereko horri, bere liburua, bere ospea eta bere omena bakarrik axola zaio. Martin gelditu egin zen, leihotik begira zegoe-larik. Azkar arnasten zuen, eta pilpira bizkortu egin zitzaion. Haserrea lotsa sentipenari gehitzen zitzaion orain. Nola ausartzen zen Wergeland jaunaz horrela oldozten? Martinek ikuspegia begiratzen zuen, begiak malkoz betetik zituela. Liburutegira itzuli eta Wergeland jaunaren ondoan eseri zen:

– On Wergeland– esan zuen tonu apalez.

Bi gizonek elkarri begiratu eta Martinek esan zuen:

– Idazkunean azaltzen den altxorra bilatu nahi dut.

– Aditu, Martin...

Wergeland asmoa kentzen saiatu zen, era guztietako azalpenak emanez, baina ez zuen ezer lortu. Martin, urduri, etxetik atera eta basoan zehar ibili zen. Amorrua sentitzen zuen bere irakaslearekiko. Zergatik zuen interes hori bilaketa deuseztatzeko? Wergelandek zerbaiti beldurra zion, baina berak ez. Azkenean basoko agerru-nera iritsi zen. Hantxe zegoen monolitoa, itzelgarri, ahaltzu, mendeen igaroari jaramonik egin gabe. Martinek hartokari hurbildu eta ukitu egin zuen. Bat-batean, nor-

bait bera behatzen balego bezala sentitu zen. Azkar biratu zen, baina zuhaitzak besterik ez zuen ikusi. Nabaritzen zuen artegatasuna baztertuz, alorra ikertzen hasi zen, hasieran haitzakitik gertu, ondoren apur bat urrutia-go. Montor bat ikusi, lau hankatan jarri eta bi eskuekin hasi zen aztarrikatzen.

Egunak igarotzen zihoazen eta Martin geroz eta itsutuagoa zegoen altxorra aurkitzeko asmoarekin. Liburutegian, Wergelandek bere liburuan lan egiten zuen bitartean, Martin idazkunaren esanahia argitzen saiatzen zen. Baina lan alferreko astiune baten ostean, etsi eta etxetik ateratzen zen, eskuan pala bat zuela, monolitorantz. Zuloak egiten egoten zen nekatu arte, orduan, etxera itzultzen zen.

Wergeland oso larrituta zegoen Martinek jasandako eraldakuntzarekin: betzuloak eta egun batzuetako bizarra zeukan, eta geroz eta argalagoa zegoen. Leihotik zehar, basorako bidean ikusten zuen pala bat eskuan zeramala. Gero itzuli, eta xahutu gabe, idaztiak kontsultatzen zituena.

Arrasti batean, liburutegian, Martinek begirada altxatu zuen momentu horretan begiratzen ari zen liburutik eta Wergelanden bizkarra behatu zuen. Zergatik utzi zuen idazkuna? galdegin zion bere buruari. Agian agurea bera joateko zain zegoen, orduan, altxorra desehortzi eta irabazi guztiekin gelditzeko asmoa zuen. On zorigabekoa.

Wergelandek biratu eta Martinen begirada egonkorra berari so egiten ziola ikusi zuen.

– Zer gertatzen da, Martin?

Martinek irrifarre bat derrigortu eta era arraro batez begiratzen jarraitu zion. Wergeland zutitu eta Martinen ondoan jesarri zen:

Martin. Hartoka honen kontu honek eragin dizu. Hobe izango zenuke arazoaz ahaztuko bazina. Gure liburua ardaztu beharra daukagu.

– Gure liburua? esan zuen tonu sarkastiko batez “Zure liburua” esan nahiko zenuen.

– Aditu, Martin...

– Ez!, entzun iezadazu zuk niri. Nazkaturik nago! Dagoeneko ez naiz zuk ezagutu zenuen gazte gizagaixo hura

– Gazte hura da orain dudan gauza bakarra.

Martin pala hartu eta etxetik atera zen, ateari izugarrizko danbatekoa emanaz. Basoan barna ibili zen, arin arnastuz. Azkenean agerrunera heldu zen. Arroka geraturatu eta gainbegirada erronkatsu bat luzatu zion. Ondoren, pala indarrez hartu eta ero baten modura hasi zen zorua zulatzen. Zulatzen zuen bitartean, behin eta berriz etortzen zitzaion gogora etxean gertatutakoa. Nolatan ausartu zen Wergelandi era horretan mintzatzen? Itzultzerakoan barkamena eskatuko zion. Beldur izugarri batek bere gorpua astintzen zuen bitartean, bere burua gorrotatzen zuelaz ohartu zen. Ezin zion lurra zulatzeari utzi, ezin zuen bilaketa bertan behera utzi.

Bi ordubete barru, lurrean etzan zen, ahituta. Leku hura lur pilatxoaz eta zuloz beterik utzi zuen, sator batek egiten duenaren antzera. Haitzakia begiratu zuen eta zorutik etzanda, erraldoia, menperaezina eta bere pairame-

naz ezaxolati iruditu zitzaion. Martin amorrubaga batekin inbaditu zuen. Zutitu eta para indarrez helduz, harkaitza begiratu zuen. Bere begirada ikusirik, kolpatu egingo zuela zirudien, baina ez zuen egin.

Azkenean etxera itzuli zen. Bere gelan krisketaz atea itxi eta ez zen egun osoan bertatik atera. Zarata batzuk esnatu erazi zuten eta Wergeland ate joka ari zela ohartu zen:

– Mesedez, Martin. Atea ireki.

Martinek ez zuen ezer esan eta ohetik ere ez zen mugitu. Ez zuen agurearekin hitz egin nahi. Gau horretan bertan, Wergelandek lo hartu arte itxarongo zuen bere logelan sartzeko eta bere oharrak bilatuko zituen, ziur baitzegoen berak idazkunaren esanahia argiturik zuela.

Gauean, Martinek erlojua begiratu eta ordubi eta erdiak zirela ikusi zuen. Eskuargi txiki bat hartu, gelako krisketa ireki, eta, zaratarik ez egiten saiatuz, korridorean zehar ibiltzen hasi zen. Wergeland mugitzen sumatuz gero, azkar itzuliko zen bere gelara. Ate parera iristean, belarria gerturatu eta Wergelanden zurrunkak entzun zituen. Eskutokia patxadaz biratu eta atea pitin bat zabaldu zuen. Wergeland lo seko zegoela zirudien. Emekiemeki, gelan sartu zen. Gaumahaian kaxoi bat zegoen, baina ohetik oso gertu zegoen. Armairura zuzendu zuen bere arretera. Bertara joan, eta kontu handiz, lau kutxatiletako bat ireki zuen. Eskuargia piztu, eta jantziz beterik zegoela ikusi zuen. Agureak erabilitako koaderno beltzaren bila ari zen. Bigarren kaxoian, argazki album bat bilatu eta ireki egin zuen, Bere argazki bat ikusteak harritu egin zuen: zazpi urte zitueneko erretratu bat zen. Ez zuen gogoratzen argazkirik eman zionik. Azkeneko kutxatila ire-

ki behar zuenean, zurrunkak eten zirela ohartu zen. Martin izutu eta ibilge geratu zen. Agian, Wergeland begiratzin ari zitzaion. So egitera ausartu gabe, eskuargia itzali eta gelatik atera zen.

Bihotzak bularra kolpatzen ziolarik, Martinek korridorea zeharkatu zuen, leiho batetik ilargiak arinki argitzen zuelarik. Bere gelan jadanik, ohean etzan eta pentsatzen hasi zen. Beharbada, altxorra lurrean ehortzita ez zegoela bururatu zitzaion. Apika, hartokaren barnean zegoen. Edozer gauza egiteko prest zegoen.

Goiztiriko lehen argiekin, Martinek pikotxa hartu eta basoa zeharkatu zuen inoiz baino ausardia handiagoarekin. Laster iritsi zen monolitora, askoz ere misteriotsuagoa egunsentian. Pika bi eskuaz hartu, eta furia izugarriarekin kolpatu zuen arroka. Ordu bete barru, hartoka txikituta zuen, pusketak haitzaren inguruan sakabaturik zeudela. Martinek hauetako bat hartu eta runa bat zuela ikusi zuen, ia ukigabe. Harria amorru osoz jaurtiki zuen eta zuhaitz bati eman zion. Haitzakiaren barnean ez zegoen altxorrik. Bere inguruan begiratu zuen, arnases-tuka, pikotxa eskuetan zuela. Zuhaitzak begira ari zitzaizkiola iruditu zitzaion, begirada salatari batez. Beste zati bat hartu eta haritz baten aurka bota zuen. Wergeland madarikatu horrek ez zion idazkuna ezagutarazi nahi. Beharrezkoa izanez gero, indarra erabiliko zuen sekretua ateratzeko.

Martinek basoa zeharkatzen zuen etxerako bidean, ilea nahasturik zuela eta pika bortxaz heltzen zuen. Liburutegiko leihotik zehar, Wergelandek etxera iristen ikusi zuen, goitik behera zikinduta eta pikotxa eskuetan zuela. Jaiki eta bere bila abiatu zen.

– Zer egin duzu, Martin? Apurtu, ezta?

Martinek ez zuen ezer esaten. Agurea begirada galduaz begiratu eta pikari lapurtzeko beldurra balu bezala eusten zion.

– Hainbeste urte ikasten jarraitu zuen irakasleak irakurtzen, klase eta hitzaldietara joaten eta guzti horrek ez dizu ezertarako balio izan. Denbora galdu nuela ikusten dut. Pertsona ezberdin bat zinela uste nuen.

Wergelandek besoetatik eutsi eta astindu egin zuen:

– Oraindik ez al duzu ulertzen, Martin? Altxorra ez zegoen haitzetik gertu, ezta honen barnean ere. Altxorra hartoka bera zen. Arroka hori sakratua zen, herri baten oroitzapenetako bat, eta zuk, suntsitu egin duzu.

Baina Martinek ez zituen hitzak entzuten. Oraindik altxorra aurkituko zuela uste zuen, eta gakoa idazkunean zegoen, berak apurtu eta basoaren aurka jaurtiki zituen hizkietan.

– Idazkunaren esanahia argitu duzu dagoeneko, ezta? Kaiku bat naizela uste duzu.

Martinek oraindik pika eskuetan zuela bere koaderno-a begiratu zuen. Bertan idazkuneko runak zituen kopia-
piatuak.

– Wergeland, zer esan nahi du idazkun putá horrek?

Wergelandek begiak itxi eta ez zuen ezertxo ere esan. Martinek pikotxa altxatu zuen, eskuak dardarka zituen.

– Azkeneko aldiz galdetuko dizut, zer esaten du?

Baina esaldi hau bukatu baino lehen, koipe sendo bat eman zion. Wergeland zorura erori zen, pika esternoian sartuta zuela. Hilda zegoen.

Martin agurearen gelara joan zen, eta, azkenean, koaderno beltza topatu zuen. Orrialdeak irakurtzen hasi zen arreta handiz. Batbatean, alarau bat bota zuen. Liburute-gira joan, eskopeta hartu, kartutxo bat zuela frogatu eta kanoia ahoan sartu zuen. Koadernoan orain lurrean botata Wergelandek idazkunaren esanahia argiturik zuen:

*“Hementxe daukat runa boteretsuen esanahia.
Altxorra lapurtzen duena oinazeztatua
izango da betirako. Bere aita erahilgo du
eta herio bortitzez hilko da.”*

Martin lurrera erori zen bere aitaren ondoan, azkene-ko besarkada baten antzera. Desarraren hotsak basoan zehar durunda egin zuen. Agerrunean, haritz agurgarriz inguratuta, monolitoa altxatzen zen, hiru metro eta erdi-ko altuerarekin, ukigabe.

POESIA. A maila

Batxilergoak eta
Erdi Mailako Formakuntza Zikloak

Soinu izoztuak

Iñigo Barbancho Galdos
Santo Tomas lizeoa
Donostia

Gaua hizkuntzaren sareetan preso geratu eta
berriro barrenean senti ez dezadan.

Gaua sartzen zait
erraietaraino.

Eternitate usainarekin nahasturik
arnasten dut
eta behin barruan dagoela
behelainoaren mantsotasunaz
pausatzen da
zainetan
odola harea bihurtuz.

Gaua sartzen zait
erraietaraino.

Pisuegia da
berunezko iluntasuna
zutik jarraitzeko,
baina ezin naiz eseri.

Mundua desertu da batbatean

izarrak itzali dira

ilargia ito da

zeruko itsasoan

soinuak izoztu dira

gauaren marmolean.

Hilotz urdinak bailiran

geratu dira,

kristal bihurtu den airetik

zintzilik

eta denboraren

murmurioa besterik

ez da irristatzen beraien artean.

Gaua sartzen zait

erraietaraino.

Jaio da negu biluzia

nire barrenean,

organoak irentsiz

memoriatik oroitzapenak erauziz

eta arimaren hodeian, apurkaapurka,

zulo beltz bat eratuz...

Hutsa.

Harrizko planeten bakardadea.

Astroen hotza.

Isiltasuna

Isiltasuna.

Astroen hotza.

Harrizko planeten bakardadea.

Hutsa.

Ba al da norbait hor kanpoan?

Hor kanpoan...

Nire pareten barneko ezerezetik sortzen den
hotsa.

Entzuten al dit norbaitek?

Norbaitek...

Oso urrutitik datorren

oihartzuna.

Altzairuzkoa baitut orain gorputza
eta ez dago nire arima besarkatuko duenik
bizirik nagoela bermatzeko.

Lipar batez,
egunaren ahuleziaz ohartzen naiz.

Zer da eguzkia gau amaigabe bateko
argi izpi bat baino?

Lipar batez,

bizitza guztia
zalantzan geratzen da,
kanporatu gabeko hasperen baten antzera.

Eta beldurra sentitzen dut.

Izua.

Zuribeltzeko irudi mutuak
hurbiltzen diren arte.

Erraietaraino sartzen dira

itsasargi baten errainuaren antzera,
eta gaua kanporatzen dute

itxaropena besapean
daramala.

Odolak bustitzen ditu, berriz ere,
hareaz estalitako kanaberak,
kriseiluak pizten dira,
ilargia urgaineratzen da
zeruko itsasoan,
eta, negu luzearen ondoren,
ihintzez
jazten dira
soinu
urtuak.

Baina iluntasun ttantta bat erori da,
egunaren koloreetan,
badakidalako,
noizbait,
gaua betiko sartuko zaidala,
sudurretik,
mantsomantso,
intsentsua bezala.

Gorputz guztian zehar hedatuko da
orratzen ahots milenarioa
eta hutsak dena betetzen duenean,
mundua desegingo da

han kanpoan.

Etorriko dira
zuribeltzeko irudi mutuak
ordu an ere
bizitza bidaia hutsal bat izan ez dela
frogatzeko,
ezerezean disolbatu aurretik
beldurra txikituko duen
airezko irribarre bat eskaintzeko.

Hotza sentituko dut.

Hilobien hotza.

Kolorezko bideak

Nerea Makazaga Eraña
Arrasateko institutua
Arrasate

Ikusia dut inoiz
gizon bat korrika,
ez maratoi bateko partaide delako,
ezta lantokira berandu doalako ere,
gizon honek
herriaren askatasunarengatik
egiten du ihes,
eta askatasuna amesten duen ororena bezala
gizon honen bidea ere
urdina da kolorez.

Ikusia dut inoiz
haur bat korrika,
ez inorengandik ihes egin nahi duelako,
ezta heldutasunera iritsi nahi duelako ere,
haur hau
alaitasunak bultzatzen du
eta zoriontsu den ororena bezala
haur honen bidea ere
laranja eta horia da kolorez.

Ikusia dut inoiz
neska gazte bat korrika
ez lirainago egon nahi duelako
ezta nonbaitera iritsi nahi duelako ere,
neskatxa honek
maitasunaren arazo zein gatazketatik
egiten du ihes,
eta maitemindu ororen bidea bezala,
honek segitzen duena ere
arrosa da kolorez.

Ikusia dut inoiz
emakume adintsu bat korrika,
ez footinga osasuntsua delako,
ezta dendak itxi egingo dizkiotelako ere,
emakume honek
iraganeko akatsei
egiten die ihes,
eta penitentzia bete nahi duen ororena bezala,
emakume honen bidea ere
morea da kolorez.

Ikusia dut inoiz
agure bat korrika
ez gazte dela erakutsi nahi duelako
ezta zahartzen ari dela onartu nahi ez duelako ere,
agure honek
ihes egiten dio heriotzari,
eta bizirik irauteko esperantza dutenek bezala,
agure honek segitzen duen bidea ere
berdea da kolorez.

Ikusia dut inoiz
mutil gazte bat korrika,
ez kirola egin nahi duelako
ezta unibertsitatera berandu doalako ere,
mutil honek odolez zikindutako gerrari
egiten dio ihes
eta gerra jasan duen iheslari ororena bezala
mutil honen bidea
gorria da kolorez.

Badirudi

badela bide zabal bat

ilusioa, esperantza, maitasuna...

biltzen dituen.

Bide hau aurkitzea

ez da zaila izaten,

aski baita

egun euritsuetan

eguzkiak jotzen duen

alderantz

so

egitea.

Honetan zehar korrika egin

nahi dutenek

ordea,

iraganari egin behar diote ihes

eta

guztiek, etorkizun berria behar dute izan helburu.

Metro

Jorge Gil Munarriz
Garaialde lizeoa
Urretxu

“La verdad no se encuentra en un solo sueño,
sino en muchos”
Asisa, *Las mil y una noches*

Metro geltokiko banku batean eseri da emakumea.
Erlojua begiratzen du eta jendearen aurpegiak hazten dira,
arratsaldearen azken hatsa ezkututzen.
Emakume ile hori bat dago, baina ez dago,
burdinazko zainetan begirada xahutzen.

Pareko trenbidean, gizon heldu batek tunelaren aho beltza,
berria beti, begiratzen du, hitz bero baten zain.
Ondoan mutil gazte bat eseri zaio. Beteriko.

Emakumeak gorputzaren hutsunea sutan nabari du,
titi eta eztarria kilima epelez janzen.
Errautsak masail idorretan erori dira,
beren besarkada beroaz basamortuak karameluz margotzen.

Mutilak ere ikusi egin du
tunelaren hats eztitsua miazkatu nahian.
Bere begirada hezea aurkitu nahi du emakumeak
bere egia itxia biluzteko.

Mutilak azkartasunez begiratu dio,
haizeak eramanez ez duela ziurtatzeko,
bere itzala han dagoela ikusi nahi du
lurrari erliebe ketsu bat emanaz.

Kea, suak sortu du,
han erre baititu mutilak
ordurarteko sentrazioak, bizitzak, leihoak.
Maitatzea beti jaiotzea izaten da.

Mutilak zigarro lotsati bat piztu du.
Hari, ez zaio gustatu eta keinu arraro batez
aurpegia zikindu du.
Mutilak zigarroa bota du. Oinaz baretu egin du.
Zigarroak ke neketsu bat isuri du.
Emakumeak han, arratsaldeak, filmeak, zuhaitzak erre ditu.
Parekatuta daude. Biak biluztu egin dira maitatzen hasteko.

Mutilak ez dio institutuaz hitz egingo,
pasabidean duen neska lagunaz,
ez bere bizitzara gonbidatuko.
Baina ez dago zertan eginik,
emakumea bertan sartu da,
eta denborak ere ez du handik aterako.

Emakumeak izena jarri dio. Helbidea asmatu dio.
Gauaren azken zipriztinetan
bere telefono zenbakia markatuko du
eta bestaldean bere ahotsa haziko da.
Orduan, berak ofizinaz hitz egingo dio, kafeaz, alfonbraz.
Arratsalde baterako geldituko dira,
egia ezagutuko du bere begietan,
eskua estutuko dio
eta beren pausok kalea asmatuko dute.
Udazkenean zuhaitzpean elkar muxakatuko dute
eta neguan berotasunez elkar besarkatuko dute.
Udan elkarri postal urrunak idatziko dizkiote
eta edonoiz, edonon udaberri bat piztuko dute.
Bizitza berri bat eraikiko diote elkarri.

Izen bat jarri dio mutilak.
Goizean esnatzean tostada beroak eta kafea hartzen dituela
dutxa bero batez gozatzen duela imajinatu du.
Gero, presaka, bere apartamentu isilean
jantzi eta eskilarak jaisten dituela.
Goizeko haize gardenak bere ilea miazkatzen duela
eta eskuak epelak izango dituela.
Denda batean lan egiten duela.

Arratsaldean, etxera iristean, musika jarri
eta liburu bat irakurtzen duela,
ohean etzanda, oinutsik eta lasai.
Gauaren lehen arnasak pentsakor topatzen duela,
bizitza asmatuko dionaz.
Segunduero bizitza berri bat gal edo irabazi
bizitza berri bati ekiten diogula ahaztuz.

Tunelaren iluntasunak betirako irentsi baino lehen,
batak bestearen ezaugarriak pilatzen ditu,
batak bestearen imajina oroitzapenetan marraztuz.
Emakumeak destinuak, nolabait, noizbait
beren bideak gurutzatuko dituela pentsatzen du,
eta egunen batean, eskutik helduta,
desioak piztuko dituztela zero gorripean.
Mutilak, bere begiak gorde nahi ditu,
eskuak luzatuta, hartu eta hodeietan lurperatu,
horrela egunero, leihoak irekitzerakoan,
haren begiradak zerua biluztuko du.
Trena heldu baino lehen, biek batera,
bestearen izen hori xuxurlatu dute,
trenaren ez tandaren zainak ametsez estaliz.

Metroa izan behar, zerutik hain urruti, infernuaren kea...
Beren gorputzak banatuta, desioak besarkatuta.
Amodioak ez dauka neurririk, pentsatzen dute,
metro, metro, bi metro, hiru metro, lau metro,...

Amodioaren neurrietako batean egingo duten topo,
orduan ezerk ez du neurririk izango.
Distantzia ez da separatzen dituen tartea,
elkarrekin ibiltzeko geratzen zaiena baizik.
Gaurtik ekingo diote bidai horri,
eta bakoitzak distantzia hori,
isiltasunaren mututasun idorrean neurtuko du.
Metro, metro, bi metro, hiru metro, lau metro,...

Oroitzapenak

Alfredo Paia Ruiz
Ander Deuna ikastola
Sopela

Eguzki printzak leihotik zehar,
esne zopak irakiten,
nire begiek garai batean
negar egiten zekiten;
egun, ordea, samurtasuna
bilakatu zait etsipen,
oroitzapenen preso bizi naiz
bihotzari eragiten
eta atzera begira ez dut
bide berririk egiten.

Garai batean goizak zekarren
bakearen hondamena;
nire oihuek azaltzen zuten
gauza ezaguna zena:
semealabak isiltzearren
irentsiko nituzkeena.
Beren lekuan dagoenetik
bakardadearen pena,
golkoan dudan hutsunea da
ni irentsiko nauena.

Gero senarrak hasi ohi zuen
bere bizitza laiotza:
whiskya hartu eta basoan
pausatzen zuen izotza,
orduan jartzen nuen praktikan
daukadan mingain zorrotza;
baina ulertu al zuen inoiz
nire maitasun aitortza?
Kopeta ilun haien atzean
izkututzen zen bihotza.

Senarra utzi eta norantza
jarri ohi nuen dendetan
bazkarirako behar nuena
erosten nuela bertan.
Semealabak itzultzerako
berriro etxera bueltan.
Orain denborak aldegiten dit
kale zaharkituetan,
norabiderik gabeko bidai
malenkoniatsuetan.

Bazkalorduan garrasi baten
zebiltzan deabru denak,
oihu berdinak izaten ziren
edalonzi hautsienak.

Egun leihotik aditzen ditut
kaleko haurren auhenak;
konturatu naiz denborarekin
aldatzen direla penak;
orain bakarrik pozten nauela
lehen gorroto nuenak.

Arrastietan ibiltzen ginen
ingles klaseen harira,
etorkizunak eskatzen zuen
prestakuntzari begira.
Egun, ordea, berdin lidake
haurrak mutuak balira:
the solitude zein bakardadea
gauza berdina baitira;
mintzaira denen oinarrietan
bihotz bat bera bizi da.

Iluntzerako etxera heltzen
ginen galtzak bete nekez;
egun antzera etxeratzen naiz
nahiz arrazoirik izan ez,
lo egiteko pastilak hartu
eta lokartzen naiz errez
egun osoan izan ez dudan
aingeruen irrifarrez,
amesgaiztoa ahantz dezadan
amets egiten dudanez.

Iragana da nire ondare
iragana, nire samin;
garai batean neskatxa zena
atso bihurtu da arin:
niri entzuten jardun zarena
beharko zenuke jakin:
bizimodua gidatu behar
duzula bihotzarekin,
zure bizitza, oroitzapenen
zuloan galdu ez dadin.

Lau bekatu hilezkor

Xabier Paia Ruiz
Ander Deuna ikastola
Sopela

Hona hemen lau arazo
gizarteari begira
edozein pertsonak ezin
ditzakeenak desira
beti lotuak egonik
historiaren harira
herriarentzat hobeto
ezagutu ezpalira
sugearen hortz zorrotzek
sudur azpian dizdira
azken garaian jendea
asko zaletzen ari da
lau bekatu luze gure
gizartearen neurrira
beti egon dira eta
betirako egongo dira

Zer da INDARKERIA?
jipoi guztien habia,
hitzen gehiegizko egarria,
ondo mintzatu ezinak ekarria,

Txerrientzat San Martinak,
oilaskoentzat oilarra,
ardiarentzat otsoa,
ilearentzat kaparra,
nagusien gorrotoa,
ume guztien negarra,
ostikadaren oihua,
ukabilaren marmarra,
zaletu asko dituzten
kiroletako izarra,
batzuen ustetan ez da
horren irtenbide txarra;
indarkeriaren bidez
lortzen da gauza bakarra:
hitzen bidez ezin dena
indarrez esan beharra.

Zer da EZJAKINTASUNA?
askoren usteen erantzuna,
sasijakintsuen laguna,
guztiok noiz edo noiz ezagutu duguna,

Berba jario luzea
bat ere ez koherentea
politikoen artean
zabaldutako ustea
inguruko belarriak
berba hutsekin puztea
sudur aurrean duguna
ondo ezin ikustea
ezereza eta dena
lotzen dituen katea
ideiarik izan gabe
berba egiten hastea
inoiz ez da ona izango
gauzak txarto egitea:
oinarri bako hitzekin
etxe bat eralkitzea

Zer da GEZURRA?
egiaren aurkako ikurra,
mintzearen aurkako beldurra,
orruka dabilen zakurra,

Egiak ageri duen
gezurrezko aurpegia
bera gabe mundu zahar hau,
a zelako miseria!
guztia ikusteko gai
den gezurrezko begia
beleari gazta ostu
gurean den azeria
Mahomaren gurutzea,
JesuKristoren mendia
egizaleen aurrean
jasandako izerdia,
baina gezurrak badauka
alde onean erdia;
potentzialean gezurra
errealean egia

Zer da MENPEKOTASUNA?
aginduak emateko gaitasuna,
indarkeriaren laguna,
egurraren ekintza ezaguna,

Eskerrik bako laguna,
galderabako erantzuna,
galderabako erantzuna,
eskerrik bako laguna,
indarkeriarekin bat
ikusitako ohi den jarduna
XXI.ean
oraindik sarri entzuna
horrela ez bedi izan
etziko biharamuna
morroiari etengabe
lan ematen dion jauna;
baina halako batean
iritsiko da eguna
denok altura berera
berba egingo duguna

Nire baitakoa zara

Enekoitz Etxezarreta Etxarri
Xabier Zubiri institutua
Donostia

“Zure begietako irla beltzera
Igerian ailegatzen ez naizenez
Zure begietako zurian poemak
Ikazten ditut.”

Joseba Sarrionaindia

Zure bila jardun dut denbora luzez
eta
ez dut zure soslaia besterik atzeman.

Harlauza desitxuratuetao karriketetan,
parke desolatuetao
taberna ilunetan,
zeure bila aritu naiz denbora luzez.
Zergatik?
zure ausentziaren ondorioz
alde banatan amildegi batek mugatutako xenda estuan
oreka galtzear
sentitu naizelako.

Praktikotasunaren gurdian abiatu nintzen;
ez zen bidegurutzerik
oro, malko bat zure aurpegi laruan pareko,
zihoan bere bidean,
eroso liriburtuaz oro,
gainontzekoen bide berean.

Bide haren homogeneitateak
zure hutsa agerian utzi zuen
eta lehen aldikotz
zure beharra sentitu nuen,
zu gabe,
arrotz sentitzen nintzen nire azalaren azpian.
Eta honela,
zure xerka hastea deliberatu nuen.

Horma zaharretako arrakaletatik
ihes egiten duten leinuruak bailiren
bilatu eta bildu ditut zure zertzelada deslaidak
izan zintezkena baino
izango ez zinatekeena kausitzearren bederen.

Eskizofreniko baten moduan
arakatu ditut bazter eta txoko guztiak
baina berehala ohartu naiz
ez zarela nolanhiko gordelekuetan ostentzen
eta labirinto konplexuagoetan
ibili naiz zure lorratzean.

Irribarren atzeetan begiratu dut
eta anbiguotasunaren altzora jauzi naiz;
Izan ere
onespenaren isla ziren irribarreek zugana bideratu naute
baina, orobat,
trufa eta isekek beren poderioz makurraraziko zintuzten bidean
atzera egin dut.

Hitzen atzeetan begiratu dut
eta ostera anbiguotasun berean erori.
Aise aireraturiko eleetan plajaturiko izateek
beren hantustez mozorrotzen dute
beren ahulezia
eta hitzen balioa merkeegi saltzen dutenek,
zinezkorik bereizi ezean,
ez didate biderik eman
zu euren baitan topatzeko.

Hitz eta irribarreen gainetik
itxura hutsei oldartu natzaie
mozorro eta maskaren azpiak inarrosiz,
kimurik gabeko ardaskak inausiz,
eta gorputz bilutsaren sinpletasunean
zure konplexutasuna bilatu dut.

Belaze loretsuetan,
intsektuek lilirik lili egiten duten gisan
zure antzeko usainen atzetik ibili naiz
eta beraiek usainduaz gustura sentitu naiz,
zugandik hurbilago.

Azkenik,
zure zertzeladaz osaturiko mosaiko bat osatu dut
irudi gisako bat,
beira transluzido haren atzeko irudi lausoa gardenduz
eta zure soslaia lerratuz doan heinean.

Zure bila jardun dut denbora luzez
eta
ez dut zure soslaia besterik atzeman.

Eta, bila eta bila aritu ostean,
eta espazio osoa arakatu ostean,
menturaz,
nire baitan topatu dut zure izatea
orobat
zure baitan dago nire izatea.
Hain zuzen ere nire baitan zaudelako,
jadanik, nire esku dago zure patua
eta neuk zizelatuko zaitut
artista baten moduan
nahieran moldatuz
zuk nire gustuko eitea izan arte.

Zure bila jardun dut denbora luzez
eta
azkenean egin dut topo zurekin:
ene nortasun.

POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. mailak

Itsasoaren besoetan

Odei Arregi Izagirre
Azpeitiko ikastola, Ikasberri
Azpeitia

Azpeitiko ikastola, Ikasberri
Azpeitia
Hasperen batean itorik
bakarrik,
gauari aorta
lehertu zaio
eta odolez dindaturiko
ilunaren argitan,
bihotz taupadarik gabeko
gorpuek
bete dute kalea.
Ni portura noa,
zure bila,
eta itsasoak
irentsi egin nau,
bere olatuez musukatu
eta ni
lurreko piztia
bere magalean
jauzi naiz
emekiemeki,
haur negar aspertuak
belarrietatik

zaizkit barneratzen
eta oroitzapenen
paradisuan
aurkitu naiz.
Farolapean
opari egin nizun
neurea zen
gauza bakarra
eta orain
hutsik nago
algen paradisuan
marinelen hilobian
inork aurkitu
ez dituen
altxorrekin bat
itsasoarena naiz
neu ere
gazitasuna
nabari dut
ezpainetan,
behin,
zureak izan ziren
ezpainetan,

orduko gozotasuna
gazitu dit
itsasoak
beti
maite izan nauen
itsasoak,
itsaso berekoiak.

Amets gaiztoetatik ihesi

Odei Arregi Izagirre
Azpeitiko ikastola, Ikasberri
Azpeitia

Negarra jabetu da ene begiez
nire malko gaziak
masail samurretik behera
doaz emeki,
bihotza erdibitu zait.

Eta amets gaiztoetatik ihesi
zure besoetara jauzi naiz.

Besarkatu egin nauzu
gerritik heldu nauzu
esku sendoz, esku hotzez
hitz leunez lasaitu.

Amets gaiztoak gauaren poltsikoetan
ezkutatu ditugu.

Eta loak hartu nau
zure ondoan, loak,
gauari aorta lehertu zaio
eta goiza ohe alboan esnatzean
bakardadea gibeletik zintzilikatu zait,
desagertu egin baitzara zu,
doinu ezagunaren oihartzuna baizina
perfumea baizina.

Izarak,

gorriz dindatuak aurkitu ditut
maitasunaren gorriz.
Amodio zitala zen zurea.
Eta hutsal sentitu naiz batbatean
sentimendurik gabe
maitasuna aireak nonbait barreiatua
gorrotoa ezpainetan tatuatua.
Eskua bularrera
eraman dut
bihotz taupadak
sentitzeko beharrez, desioz.
Ezerezean galdu naiz
hamaika ispilutako logelan legez
bihotz taupadarik ez entzutean.
Hilik, hotz, hilotz.
Behin hola amets gaizto batetik
askatu ninduzuna
kotoi gainean
lokartuaraziz
bihotza lapurtu zenidana.
Eta artaziez
zuk laztanduriko
larrua moztu dut

tolestu eta gutunean sartu
eta urrutira bidali nahi nuke
zure izena, usaina, ahazteko itxaropenez
ez baitut zure oroitzapenik eduki nahi.

Garai bateko hondarrezko erloju goibela

Ekhi Lopetegi De la Granja
Santo Tomas lizeoa
Donostia

Tristura eta ezina

Zoriona argazki bihurtu nahi izan dut,
Tamalez, hondarrezko erloju goibela besterik ez da.
Apurkaapurka, denborak agortzen duena.
Eta azken hondar malkorarte,
Udazkenak, hostoak ximelduko ditu etengabe.
Maitasunak eskua luzatuko dit orduan,
Baina bere esku zurbilaren laztantzea ezin sentitu.
Udaberriko garrasiak oroimen direnean,
Inoiz etorriko ez den udaberri berriaz ohartuko naiz.
Ene sakonean, arrosa ederra,
Ximeldu da,
Apurka, apurka, azken hondar malkorarte.

Bizitza

Itzulirik gabeko bidaia hasia dugu jada,

Bidaikide nahi zintuzket,

Haritz biluztuaren adarrak bide ezberdinetan sakabanatuko

[dira ordea,

Argi bila bide ezberdinak aukeratuz,

Urrunduz azken finean.

Oroimen bihurtuko zarenaren beldur,

Denbora eta bizitzaren aurka borrokatu dut,

Etsai indartsuegia.

Bizitzaren olatu bihozgabeek

Ene barnean harkaitz sendoa ahuldu dute,

Irrifar keinuak itzaliz nire aurpegian.

Maitasunaren sugarren berotasunean, neu eta nire ametsak.

Aurrean, denbora, maitasuna eta itxaropena ostu ezinean

[zoriona erauziz badoa

Oroimenak, ametsak eta itxaropena

Gauero, garai hobeak oroitzeko beldurrez,

Begiak itxi eta zu zaitut begiratzen,

Nahiz eta malkoek ene masaila busti.

Oroimenek gogor astintzen didate barnea,

Kristalaren bestaldean bizitzen ikasi behar.

Norbaiten bihotzean txoko bat desiatu

Eta hegoak astindu nahian,

Ametsetan...

Maitatzeari utzi ezin badiot ere,

Denboraren gudan garaile suertatzeko,

Elkar agurtu behar dugu noizbait.

Tunel beltz batean murgilduko gara,

Argi izpi desagertuen bila.

Guda beltz honen tunel ilunean,

itxaropenak loratuko du ene baitan arrosa ximeldua

Beldur guztiak uxatu nitueneko eguna oroimen denean

Bakarrik, inora ez naraman bidaiari ekingo diot,

Itxaropentsu,

Udaberri ahaztua lotalditik esnatuko dugu orduan,

Noizbait haritz biluztuaren adarrak topo egingo dutelakoan.

Itxaropenaz, noizbait ene masaila bustiko duen malkoa,

Tristuraren islada izango ez delako,

Begiak itxi beharrik gabe,
Zu begiratu ahal izango zaitudalako,
Eguzkiak ihintza lurruntzen ez badu ere.
Agurraren azken musika goibela,
Melodia leun, maitakor eta alai izango baita,
Noizbait, berriz elkar ikusiko dugunean.
Garai batean hondarrezko erloju zen zoriona
Argazki bihurtuko baitugu.

Asko maite duenak asko sufritzen du

Irati Goikoetxea Asurabarrena
Alkartasuna lizeoa
Beasain

Non sartu zara Kuxki txakurra?

Non sartu zara laguna?

Belarri eta begi zolien
pausagunetik urruna,
egonezinak mailukatzen du
nire urduritasuna,
bihotzean behazuna,
malko gazien jarduna (bis)
txoko guztiak ongi miatuz
pasa ostean eguna,
ezkaratzean aurkitua dut
galderaren erantzuna. (bis)

Lagun harturik etxe atzeko
haritz zaharraren itzala,
babestu nahian eri dagoen
txoriñoaren azala,
zauri, ubelak eztimamitzen
hasia da berehala,
maitekiro nolahala,
txakur zintzo eta leiala (bis)
gozotasunez ferekatzen du
eskainiz bere magala,
ama gazte eta sotilak bere
bular umea bezala. (bis)

Lumatxoetan dardar bizia,
gorputz barrenean hotza,
begiak triste, hankak indarge,
mokoan zerbait berdotza,
oihumina ren pairamenean
zotina eta arnas hotsa,
lurrean erdi hilotza,
hau egoera mingotsa! (bis)
Sentimenduak kateaturik
zapuzturik bizipoza,
malko gazien itsasgunean
hondoratu zait bihotza. (bis)

O! bihotzeko txori maitea,
birigarro kantarina,
goxatu nahian zure zauriei
darien odol ozpina,
beheko suaren ondoan kabi
txiki bat dizut egina,
pausaleku atsegina,
dotorea eta fina; (bis)
unerik une ongi xeratzen
saiatuko naiz jakina,
berriz gurekin izan dezagun
zure kanturako grina. (bis)

Hits eta zurbil nengoelarik
etsipenean bildua,
haitzulo ilun, goibel batean
pulunpaturik burua,
itsumustuan piztu da gure
Kuxkiren zaunka galdua,
txorian txirulirua;
alaitu da ingurua, (bis)
udaberriak ordezkatu du
beltza izan den negua,
elkarrengandik zein hurbil dauden
infernua eta zerua. (bis)

Hegoetako zauri karminak
orbaintzen direnez ari,
dagoeneko bere bisaian
ez da malkorik nabari,
do, re, mi, fa, sol, aire eztian
barne harraren gidari,
ametsa amets atari,
bizipen xalo ugari, (bis)
zozoa eta karnaba lagun
txorrotxioka kantari,
birigarroa dugu Amalur
Orkestrako zuzendari. (bis)

Egongelatik sutondoraino
hegazkadan jirabira,
birigarroa malenkoniaz
dago kanporantz begira,
horma zurrunen mugetatik at
beharko dut erretira,
egoeraren neurrira,
bihotza dantzan ari da (bis)
balkoi izkinan hortxe utzi dut
barne grinaren harira:
aske hiltzeko jaio direnak
aske bizi behar dira. (bis)

DOINUA: LEIHO ERTZETIK

Margotu ninduten

Gaizka Amondarain Ipiña
Arratia institutua
Igorre

*sometimes I feel
like I don 't have a problem
(under the bridge)*
RED HOT CHILI PEPPERS

Margotu ninduten,
gizakiaren simulakro bat
banintz bezala
kopeta beltzez
 aho zuriz
begirik gabe.

Margotu ninduten,
aurkitu berri zuten
paradisu hartan
itsututa
 arnasestuka,
perfekzioaren kiratsak
kolore argiakoak
eskatzen zituen.

Margotu ninduten,
Afrika koloretsuan
diru aurrezteari buruzko
liburu baten
argitalpenaren erdian,
urrezko lumaz liburuak
dedikatzen.

Margotu ninduten,
komunean nengoela
“nirvana”ren atea irekita
imajinatu nituenean.
(ur korrante batek
hertsi zituen arte)

Margotu nituen,
kolorerik gabeko
kuadroaren aurrean
egindako lanagatik
elkar zoriontzen ari zirenean.

Burmuin garatu bat
gutiziatzen dut,
pentsa ezinak diren
pekatuak
egiteko

Hanka sendo bi
gutiziatzen ditut,
Mesopotamian galduriko
paradisua
bizi guztian amestu
dudana
harea multzo bat baino
ez dela frogatzeko

Bihotz ona edukitzea
gutiziatzen dut,
mundura ekarri ninduen
jainkoari
barkatu ahal izateko,
egunero torturatzen nautenean
errudunak
ez gorrotatzeko

Beso gihartsu bi
gutiziatzen ditut,
gizarte hau
besoetan hartu eta
solidaritatearen putzura
bota ahal izateko

Ikusten ez duten begi bi
gutiziatzen ditut,
telebista beti itzalita
ikusi ahal izateko

Entzuten ez duten belarri bi
gutiziatzen ditut,
gizarte mutuaren
oihuak
entzun ahal izateko
bankuko atearak
zabaltzen ditudan
bakoitzean

Neska lagun bat
gutiziatzen dut, egunero
lanetik bueltatzean
arrosa bat oparitu
eta dakardan zama guztia
beragan askatzeko

Hau ez den mundu bat
gutiziatzen dut,
desiatzen dudana guztia
egiteko
beste mundu bat

URRZUNOTARRAK

1986-1999

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	115	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	81	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	155	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	145	Prosa
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Zerua negarrez denean	1999	19	Prosa
Aizpuru Seguroa	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	65	Prosa
Aldabaldetreku Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	185	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	193	Poesia
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	35	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Aranguren Juaristi	Olatz	Aztiaren eskuetan...	1996	125	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	65	Prosa
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedean isila	1989	171	Poesia
Arratibel Galartza	Enara	Begi dizitiratsiak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arregi Izagirre	Odei	Itsasoaren besoetan	1999	169	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Amets gaiztoetatik ihesi	1999	175	Poesia
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arrizabalaga Linaza	Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde	Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruti Errazkin	Idoia	Ametsen Bakardadean	1998	63	Prosa
Arruza Elgezabal	Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien	Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa
Artola Iriondo	Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta	Amaia	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Iluntasunean lorea zimeltzen den lez	1997	221	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Denborak ez du astirik	1997	237	Poesia
Asurabarrena Zipitria	Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Igor	0 14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre	Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Desgaraiko olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zer dakarkit erreka urak zure negar malkoak ez badira?	1997	163	Poesia
Ayllón Corral	Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azkarate Egaña	Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Azkue Ibarbia	Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberria	Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Barbantxo Galdos	Íñigo	Soinu izoztuak	1999	123	Poesia
Baroja Arrue	Miguel M ^a	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez	Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz	Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Beloki Lizarralde	Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Bengoa Santxo	Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Etorkizunaren lurraldean	1997	193	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Atzera begira	1997	199	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Zure gorputzaren abenidetan galduriko azken intifada	1997	205	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Amaraun Anonimoetan	1998	177	Poesia
Beobide Azpeitia	Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Betzuen Arana	Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña	Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Farolpeko itxoitea	1996	161	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Urki	Beltz	1998	217	Poesia
Bitorika Albizu	Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo	Amaia	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Cano Jauregi	Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldu hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Collado Legorburu	Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
Churruca Fernandez	Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De Miguel Arnaiz	Olatz	Amaren Heriotza	1998	205	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Imaz	Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren	Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaien Uranga	Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esnal Badiola	Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Gau Hotza Eta Lainoa	1998	127	Prosa
Esnaola Goienetxea	Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao	Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estevez Fernandez	Monica	«The beautiful life of the drugs; very-very beautiful life...»	1996	181	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Desioan galdu arte	1997	177	Poesia
Estévez Fernández	Monika	Poetaren Bidea, Amaierarik Gabeko Kalea...	1998	153	Poesia
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Etxebarri Coello	Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi	Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etkezarraga Ziarrusta	Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Etkezarreta Etxarri	Enekoitz	Nire baitakoa zara	1999	159	Poesia
Ezeiza Ramos	Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre	Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Fernandez Jauregi	Ander	Bakardadearen miseria	1999	53	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Zakurra	1998	105	Prosa
Franko Sudupe	Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran	Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo	Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi	Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz	Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
Garcia Aretxabaleta	Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa
García Berasategi	M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar	Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal	Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe	Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Sei Puntako Izarra	1998	33	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Txantxangorriaren Kantua	1998	53	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Laztana	1999	37	Prosa
Garmendia Munduate	Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Izarren izenean	1997	123	Prosa
Gil Munarriz	Jorge	Heriotzak Ez Zekiena	1998	143	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Gil Munarriz	Jorge	Metro	1999	137	Poesia
Goenaga Jauregi	Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz	Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Asurabarrena	Ekaitz	Gauaren Ilunduran	1998	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Asko maite duenak asko sufritzen du	1999	187	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Zabaleta	Idoia	Björkeport maldizioa	1999	101	Prosa
Goitia Pastor	Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gómez Alonso	June	Gaueko kronika bat	1997	131	Prosa
González García	Kristina	Errugabea	1998	77	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Leticia	1997	111	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Londresko Bluesik Ederrena	1998	69	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Baserritik	1999	29	Prosa
Gorrotxategi Azkune	Miren	Herio	1997	229	Poesia
Gurrutxaga Uranga	Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Gurrutxaga Zubimendi	Iñaki	Espaloia	1999	43	Prosa
Ibargutxi Gisasola	Lierni	Holyhead en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain	Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal	Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal	Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza	Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totorika	Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jauregi Larrañaga	Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregizuria Lopez	Maidier	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal	Nagore	Emagalduek deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta	Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Landabidea Urresti	Xabier	Sua	1997	215	Poesia
Larrabide Elexpuru	Leire	Opari misteriotsua	1995	103	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Laura	1997	23	Prosa
Larrañaga Zabaleta	Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi	Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo	Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa
Leiaristi Guenaga	Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Leturia Iurrita	Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Urrutia	Maidier	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Loidi Garitano	Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola	Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Lopetegi De la Granja	Ekhi	Garai bateko hondarrezko erloju goibela...	1999	181	Poesia
Llona Ormaetxe	Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Madina Ugartemendia	Mikel	Ezetzta	1990	173	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Ilunbeko Neska Txikia Eta Hegoak	1998	211	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Kolorezko bideak	1999	131	Poesia
Malagon Zaldua	Ana	Beleak kontatzen	1994	87	Prosa
Malagon Zaldua	Ana	Beti mukan, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Malagón Zaldua	Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Manterola Arostegi	Nere	Bizitzeko arrazoa	1991	77	Prosa
Martinez Zabalegi	David	Zerurako bide bi	1999	89	Prosa
Mendia Usabiaga	Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendiolha Agirre	Aitzol	«Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta «»vasco»-a»	1991	37	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Ander	1988	21	Prosa
Muguruza Sarasua	Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muguruza Sarasua	Lorea	Musika baino pista hoberik non?	1999	73	Prosa
Muñoa Arrigain	Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muruaga Lejona	Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre	Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape	Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo	Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olarra Allika	Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olazabal Elorza	Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta	Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Ornoz Antxordoki	Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta	Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padron Plazaola	Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Padrón Plazaola	J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padrón Plazaola	Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Tontoarena	1997	245	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Dakitenek Jakingo Balute	1998	227	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Lau bekatu hilezkor	1999	151	Poesia
Paia Ruiz	Alfredo	Oroitzapenak	1999	145	Poesia
Peruarena Ansa	Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien	Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Redondo Pares	Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rios Bernaola	Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Ilunabarreko kantu malenkoniatsua	1997	85	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Aneren Kaiera	1998	19	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Eternitatearen Memorian	1998	167	Poesia
Salinas Elosegi	Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elosegi	Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua	Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga	Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarobe Txopeitia	Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sudupe Rodriguez	Maidier	Azken agurra	1995	65	Prosa
Tolosa Eizagirre	Egoitz	Gatibuari Kantua	1998	195	Poesia
Torres Renedo	Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta	Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	5B: bizitza beltz bat beltzen bizitza	1988	71	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Urbizu Uribe	Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uribesalgo Urizar	Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Garmendia	Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal	Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutia Urteaga	Maite	Noraezean	1998	135	Prosa
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Argazki horizatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urzelai Izagirre	Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Villena Camarero	Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia
Villena Camarero	Unai	Naturaren muga herdoilduak	1997	169	Poesia
Villena Camarero	Unai	Odola	1998	45	Prosa
Vives Urbietta	Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Benta ilunetan da nire gogoa	1996	29	Prosa
Zabala Basterretxea	Miren	Oroitzen al duzu?	1997	73	Prosa
Zabala Ormazabal	Idoia	Anbare Grisa	1998	85	Prosa
Zabaleta Umeretz	Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Horixe bakarrik	1996	203	Poesia
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Bi bide	1997	97	Prosa
Zabalo Enparantza	Katrin Naroa	Bi egun New Yorken	1989	71	Prosa
Zorita Arratibel	Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral	Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Zubeldia Aierbe	Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa
Zubillaga Zurutuza	Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola	Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zuloaga Martinez	Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa
Zumarraga Azkarate	Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia
Zumarraga Azkarate	Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia



P O E S I A

IÑIGO BARBANCHO

NEREA MAKAZAGA

JORGE GIL

ALFREDO PAIA

XABIER PAIA

ENEKOITZ ETXEZARRETA

ODEI ARREGI

EKHI LOPETEGI

IRATI GOIKOETXEA

GAIZKA AMONDARAIN



Irakaskuntza Ertainetako Urruzko Literatur Lehiaketa 1999

Arthur Rimbaud poeta frantsesak hamazazpi urte zeuzkan bere poema libururik garrantzitsuenak idatzi zituenean; Susan E. Hinton estatubatuarrak hamasei besterik ez Errebeldeak nobela txundigarria argitara eman zuenean: hitzaurre honen ondoren datozen poema eta narrazioen egile askoren adin berbera. Baina Hinton-en eta, areago, Rimbaud-en garaiak beste batzuk ziren; orduko gazteek irakurtzea zuten denborapasarik zirrargarri eta, askotan, debekatuena. Irratirik ez; telebista Verne-ren burutik ere pasa ez zen asmakizun ezinezkoa zen; eta bideojolasez eta internet-ez, zer esanik ez; errealitate birtualik grinatsuenak Robinson Crusoe eta Madame Bovary izan zitezkeen. Filmerik ikusgarrienak, berriz, Parisen edo Londresen taularatzen ziren antzerki lanak ziren.

Hazia ereinda dago, eta emango duen fruitu umotua hitz indartsua izango da, hartzen duen forma hartzen duela. Izan ere, hitzaren bidez izpiriturik gogorrenak ere hunkituko dira, eta aspertuenak bizkortuko; dohakabeei itxaropen izpi bat piztuko zaie, eta bere buruaz harro daudenak zalantzaren ur uherretan murgilduko dira. Izan ere, milurte berri baten atarian egon arren, gizakion grinak Neolitikoko berberak dira. Izan ere, azken mende honetako gertakari askok amildegiaeren ertzean jarri gaituztela badirudi ere, oraindik ere, munduak idazleen beharra dauka.

Manu Lopez Gaseni

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEAK
ETA IKERKETA SAILA

Salneurria: 800